
Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1991



Memoria
1991
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia





EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1991

Testu idazketa: J. L. Lizundia
Testu gainbegiratzea: J. M. Satrustegi
Makinatze lana: Itziar Rekalde

© Euskaltzaindia

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.

Cuevas de Ekain, 3, 1.º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.

Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1560-1992

AURKIBIDEA

Sarrera	7
1. Ekintza Orokorrak	9
1.1. Bilkura eta akademi bilerak	11
1.2. Osoko bilkuretako erabaki zenbait	12
1.3. Batzarre-txostenak	14
1.4. Nazioarteko dialektologia biltzarra	15
1.5. Gertakari akademiko eta ekintza ordezkagarri zenbait	16
1.6. Euskaltzaindiko batzordeen organigrama	18
2. IKER Saileko batzordeak	25
2.1. Hiztegegintza batzordea	27
2.2. Gramatika batzordea	31
2.3. Dialektologia batzordea	32
2.4. Onomastika batzordea	38
2.5. Literatura batzordea	41
2.6. Euskara batuko batzordea	47
3. JAGON Saila	49
4. Akademi Zerbitzuak	53
4.1. Egoitza eta ordezkartzak	55
4.2. Azkue Biblioteka	56
4.3. Argitarapenak	59
4.4. Itzulpen eta kontsulta zerbitzua	63
4.5. Etsaminak	64
5. Aurkitegia	65

Sarrera

Gertakizun garrantzitsu bat nabarmentzen da 1991ko eginkizun nagusien egutegian. Euskaltzaindiaren egoitza berrian sartzea, eginkizun arrunten gainetik Erakundearen historiari dagokion zerbait da, sortzaileen aspaldiko ametsa betetzen baitu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza bere egunean izandako etxe hau, Bilbon Plaza Barriko paretalde nagusian dago eta erabateko birmoldaketa egin behar izan zaio oraingo beharretara egokitzeko, kanpoko hormak ukitu ez badira ere lehengo itxura gordez.

Goi mailako ospakizunez egin zen etxean sartzea, bertan izan zirelarik Jose Antonio Ardanza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, eta Nafarroako Gobernuko buru den Juan Cruz Alli. Kanpotik zebilen Bizkaiko Diputatu Nagusiaren ordez, Tomas Uribeetxebarria Kulturako diputatua egon zen, hala nola Alberto Ansola eta Eli Galdos, Araba eta Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Gonbidatuen aurre-aulkietan zegoen Luis Maria Larrea, Bilboko gotzaina, Euskal Herriko Unibertsitateen ordezkariekin eta erakunde ofizialetan dauden alderdi politikoetako arduradun nagusiekin.

Josu Ortuondo Bilboko alkateak eman zien denei lehen ongietorria. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak gero bere bozkarioa agertu zuen, Jose Antonio Agirre lehen Euskal Gobernuko lehendakariak Azkue zenari noizbait emandako hitza, Euskaltzaindiak berari zegokion egoitza izango zuela alegia, bete delako, eta eskerrak eman zizkien asmo txalogarri hura gauzatzen parte hartu duten guztiei.

Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak pozik zegoela agertu zuen ekintza honetan J.A. Pradera ordezkatzear. Hel-

burua lortu arte gainditu behar izan diren arazoak aipatu zituen, baina hizkuntzak uztartzen duelarik gizartea, euskarak beteko duela gure artean egiteko hau.

Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako buruak, Euskaltzaindiari hasiera-hasieratik eman zizkiola laguntza eta babesak Nafarroak, esan zuen, han egindako batzarreak eta Jardunaldiak aipatuz. Aurrerantzean ere laguntzen jarraitzeko xedea agertu ondoren, tamalgarritzat jo zuen, euskara denon altxorra eta herriaren ezaugarri nagusia izanik, politika alorreko eztabaidetan sartzea. Ezinbestekoa dela bere ustez, alderdi politiko guztien babesak merezi duen hizkuntza aurkako tirabira guztien erasoetatik ateratzea.

Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ospakizunaren garrantzia azpimarratu zuen. Euskaltzaindiak bere eginkizuna betetzeko behar dituen dirulaguntzak izango dituela hitzemanen. Denbora berean, gomendio zehatzak egin zizkion. Hasteko, Euskal Herri osoko erakunde bat izanik, alderdikeriari gabe bideratu behar duela batasunaren eginkizuna. Zentzuz ahalegindu behar duela euskara gaurko premietara egokitzen, norberaren uste eta iritziak gaindituz. Eskatzen zaizkion lanei erantzuten bizkortasuna behar duela gaurko premien presaz, eta hitzartutako eginkizunak epe barruan bukatu ditzan.

Egoitza berriak bost solairu ditu. Beherean aretoa eta sarrera-irteeren eskaratza ezarri dira.

Solairu artean bulegarien lantokiak eta administraritzako arduradunen bulegoak daude.

Solairu nagusian euskaltzainen batzargela, batzordeen biltoki bat eta Zuzendaritzako kargudunen bulegoak daude.

Gaineko solairuetan sartu dira Azkue Biblioteka, artxibategia eta irakurketarako gela.

Hirurogeita hamairu urteren buruan egoitza lortzean, Euskaltzaindia jabetzen da herriaginteen beragan ezarritako konfidantzaz eta euskararekiko arduraz.

Sakabanatutako ekintza asko bateratuko ditu etxe berriak azken emaitzak ugalduz.

1. Ekintza Orokorrak

1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak 1991. urtean bere hileroko batzar arruntak era honetara egin ditu, hots: sei hilabetetakoak, Gipuzkoako Foru Diputazioan; eta besteak, urtarrilekoak, Ziburun; apirilekoak, Bizkaiko Foru Diputazioan; maiatzekoak, Baionan; urrikoak, Bilboko egoitza berrian; eta abendukoak, Saran (Lapurdi).

Zuzendaritza, gutxienez bigarren ostiraletan bildu da eta batzordek euren aldetik, lanaren arabera, bilkura egutegia bete dute. Ohizko bilkurez gain, zenbait mendeurren eta gertakizun ospatu dira: jardunaldi, omenaldi eta batzar irekiak eginez, alegia:

– Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1 eta 2an, Jean Duvoisin lapurtar idazlearen heriotze mendeurrena ospatuz, hileroko batzarrez gain, VII. Barne Jardunaldiak egin ziren Ziburun. Batzar irekian Albert Pery auzapezak ongi etorria eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sarrera hitzak esan ondoren, bi txosten eman ziren: bata, «Donibane-Ziburu euskal literaturaren iturri» izenekoa, Pierre Charriton euskaltzainak eta «Euskarazko lehen Biblia egin zuen kapitainaren lanak eta minak» izenekoa, Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzainak.

– Apirilaren 26an, Bizkaiko Foru Diputazioarengandik egoitza berria hartzeko ekintza ospatu zen. Bertan, lehendabizi, Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia mintzatu zen, eta ondoren, Jean Haritschelhar euskaltzainburua. Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak, «Euskaltzaindiaren egoitza berriaren historia» izeneko txostena irakurri zuen eta Eduardo de Felipe arkitektoak Euskaltzaindiaren egoitza berriaren xehetasun teknikoek txosten bat. Azkenik, VII. Barne Jardunaldietan izendaturiko euskaltzain urgazle berriei diplomak banatu zitzaizkien.

– Maiatzaren 31n, hileroko batzarrez landa, Baionako «Mercure» hotelean, III Programa Jardunaldiak egin ditu, zeinetan hurrengo urtean eginkizun izango diren lanak finkatu bai ziren. Biharamunean, ekainak 1, Angeluko udaletxean, Beñat Oihartzabal euskaltzain berriaren sarrera ospatu zen batzar ireki batean. Victor Mendiboure herriko auzapezak bere agurra, gaskoinez lehendabizi eta frantzesez gero, egin zuen. Arrapostu gisa, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren berri ematen dio. Jarraian, Beñat Oihartzabal euskaltzain berria sartu zen, beraren hitzaldi-gaia «Jean Hiriart-Urrutiren obraz» zelarik. Erantzuna, Jean Ha-

ritschelharrek ematen dio, Beñat Oihartzabalen bizitza eta batez ere bere ikasketa eta ikerlanez xehetasunak azalduz.

– Urriaren 21ean, euskaltzainen hileroko bilkurarekin hasi ziren egoitzaren inaugurazioa eta Louis Lucien Bonaparte Printzearen ospakizunak. Lehendabizi, goizean, euskaltzainen hileroko bilkura egin zen; eguerdian, agintarien mintzaldien ondoren, Bonaparte, euskalariaren omenezko hitzaldi biak: Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak, «Bonaparte, Europako dialektologia eta euskalkiak», eta Wolfgang Viereck, Bamberg-Bavierako unibertsitateko irakasleak, «Prince Louis Lucien Bonaparte and English Dialectology»; arratsaldean, propioki, hasi zen aste osoko XI. Nazioarteko Dialektologia Biltzarra.

– Abenduaren 20 eta 21ean, hileroko euskaltzainen bilkuraz gain, Jean Baptiste Elissambururen mendeurrena ospatuz, Literatura jardunaldi batzuk egin dira Sarako (Lapurdi) udaletxean. Bertan hamabi txosten irakurri ziren Elissambururen inguruko gaiei buruzko ikerketak agertuz.

1.2. OSOKO BILKURETAKO ERABAKI ZENBAIT


1991. urtean aipagarri izan daitezke beste erabaki akademiko solte zenbait, alegia, batzordeez landa, hileroko euskaltzain osoen bilkuretan landutakoak. Kasu honetan garrantzitsuenak, hauek liriateke:

– Otsailaren 1an, osoko bilkura berezian, euskaltzain ohorezko eta urgazle berri hauek izendatu ditu: Rudolf de Rijk, Jose Maria Jimeno Jurio, Jon Etxaide, eta Yuri Zitsar, ohorezko eta Jose Antonio Aduriz, Bernardo Atxaga, Gotzon Aurrekoetxea, Günter Brettschneider, Andolin Eguzkitza, Marxel Ensunza, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Itziar Idiazabal, Joseba Andoni Lakarra, Juan Kruz Odriozola, Jon Ortiz de Urbina, Rosa Miren Pagola, Georges Rebuschi, Joseba Sarrionaindia, Iñaki Segurola, Patri Urkizu eta Andres Urrutia, urgazle.

– Bilboko Burtsako zuzendariak eskaturik eta burtsa munduan euskarara ofizialki erabiltzeko, «burtsa-hiztegi» bat landu eta onartu du. Horretarako, batzordeño berezi bat izendatu zen, Jose Antonio Arana Martija, Eusebio Erkiaga, Xabier Gereño eta Gurutz Ansolak osatua. Urtean zehar proposamenak aztertu eta eztabaidatu dira azaroko batzarrean burutu zelarik zerrenda osoa.

– Letra larrien edo maiuskulen erabilpenari buruz argibide gehiago eman ditu uztailaren 27ko batzarrean.

– Euskal hitzei buruzko bigarren adierazpena, hots, duela 32 urte euskal hitzak zein diren esan zuenaren jarraipena aztertu eta onartu du martxo eta apirileko batzarreetan.



«Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak» esan bazen orduan, euskera bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak, esan daiteke orain, ideia laburbilduz.

– Erakundetatik galdetutako zenbait hitz finkatu ziren, bereziki agerietan erabilpen ofiziala izango dutenak.

– Euskaltzaindiaren ikurra aldatzea edo egokitzea onartu zen ekaineko batzarrean sorrerako logotipoa berreskuratuz.

– Euskara Batuko batzordeak hilero-hilero proposamenak aurkeztu ditu osoko batzarreetan, Arantzazuko Biltzarraren 25. urtekari orain arte araututakoa berrikusiz, arau berriak emanez edo garatuz eta gaizki erabiltzen direnak azalduz. Bere lekuan azalduko da xehetasunen txostena.

– Azaroko batzarrean Hiztegitzaz bezperan, 28an, Laurgain-Aian egindako jardunaldien ondorioak aztertu eta onartu ziren, hots, 1. Euskara Batuko hiztegiaren sortzea; 2) *Orotariko Euskal Hiztegia* eta Egungo Euskararen Bilketa Sistematiakoaren corpusekin euskararen datu-base lexikografikoa aurrera eramatea; 3) Datozen bost urtetan euskara baturako hitz-zerrenda moldatzeko asmoa bideratzea.

Hurrengo hileko batzarrean, hots, abenduaren 20an. Lapurdiko Saran egindakoan «Hiztegi Batua» aurrera eramateko plangintza onartu da eta batzordekideak izendatu ziren: Ibon Sarasola, Iñaki Segurola, Miren Azkarate, Jose Antonio Aduriz, Andoni Sagarna, Mikel Zalbide, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu, Luis Baraiazarra.

1.3. BATZARRE-TXOSTENAK

Hileroko batzarretan dagozkien txosten akademikoak izaten dira, bai arruntetan, gai solte ala libreak, eta bai mendeurren edo bestelako ospakizun bat denean. Gai akademikoak izaten dira gehienetan, hizkuntza, ikerkuntza edo literaturari lotuak.

Gai solteetan, 1991. urtean emandako txosten hauek azpimarra daitezke:

- «Jean Baptiste Etcheberry bere bizian ilunabarrean 13 liburu idatzi dituenak» Emile Larre euskaltzainak.
- «Euskaltzaindiaren laguntzailleak (1933)», Juan Mari Lekuona euskaltzainak.
- «Fray Miguel-ek darabiltzan zenbait hitzez» Francisco Ondarra euskaltzainak.

- «La notion d'age dans le terme 'ami' en basque et en tcherkesse», Michel Morvan ikerlari frantsesak.
- «A propos d'un ancien nom du vaurien en japonais», Morvan jaun berberak.
- «Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan», Juan San Martin euskaltzainak aurkeztua.
- «Fray Juan Ajuriaren idazlanak», Francisco Ondarra euskaltzainak.
- «Baztango hizkeraz ohar batzuk» izenekoa, Pello Salaburuk
- «Exotoponimoen euskal formaz», Ibon Sarasola euskaltzainak

1.4. NAZIOARTEKO DIALEKTOLOGIA BILTZARRA

L.L. Bonaparte euskalari ospetsua dagokion bezala ohoratu nahi izan du Euskaltzaindiak bere heriotzearen mendeurrenean.

Hori dela eta Nazioarteko Dialektologia Biltzarra antolatu du. Batzorde iraunkor eta lankideen laguntza eskergaitzarekin, bere alderdi akademikiko zientifikoa, nagusiki EHHako idazkari teknikoen gain izan delarik; hots, biltzarraren definizioa, hizlariak hautatzea eta haiekiko harremanak, gaiak eta hitzaldiak zehaztea. Prentsa-zerbitzuaren aholkularitza zientifikoa, prentsaurrekoen diseinua, informazioaren norabidea, eta abar.



XI. Biltzarreko azken prentsaurrekoa.

Karia honetara gure artean izan ditugu Europako herri desberdinetatik etorriak Dialektologiari buruzko proiektu nagusien buruak eta puntako ikerlariak. Hala nola M. Alinei «Atlas Linguarum Europae» proiektuaren arduradun nagusia, H. Goebel «Atlante linguistico del ladino dolomitico e dialetti limitrofi» lanaren arduradun eta dialektometriaren ordezkari gailena, J. Le Dû Frantziako hizkuntz atlasen informatizapenaren arduraduna, P. Trudgill, J.L. Fossat, G. Rebuschi, J. Veny, P. García Mouton, M. Contini, J. Allières, e.a.

Hauekin batera Euskal Herriko Unibertsitate eta erakunde desberdinetan dabilzan G. Aurrekoetxea, X. Erize, J. Manuel Etxebarria, J. Mari Etxebarria, X. Falcon, F. Leizaola, J. A. Letamendia, B. Oihartzabal, J. B. Orpustan, R.M. Pagola, Tx. Peillen, K. Rotaetxe, Tx. Sagarzazu, P. Salaberri eta X. Videgain.

Biltzarra goi mailako gertakari zientifikoa gertatu da. Kanpoko adituen esanetan «C'était unique et phantastique à la fois!» (H. Goebel), «la organización ha sido perfecta y se ha creado un clima ideal de trabajo y cordialidad...» (J. Veny i Clar), e.a.

1.5. GERTAKARI AKADEMIKO ETA EKINTZA ORDEZKAGARRI ZENBAIT

1991. urtean izan diren gertakari akademiko solte nagusien aipamena egiten da sail honetan, beste erakunde batzuren ekintza garrantzitsu zenbaitetan Euskaltzaindia ordezkatu denaren albisteak ere emanez.

Urtarrila

Antonio Berrueta euskaltzain urgazle arabarraren hil berria eman zen hil honetako batzarrean.

Otsaila

Alessandro Baussani, italiar euskaltzain urgazlearen hil berria eman zen batzarrean. Erromako unibertsitateko irakasle ohi eta euskaltzale honen albisteak, lehenago gertatu bada ere, oraintsuarte ez da jakin.

Hil honetako batzarrean Juan San Martin euskaltzainak Justo M.^a Mokoroa urgazlearen hil berri txostena eman zuen, haren bizitza eta lan oparoa azalduz.

Apirila

4, 5 eta 6an, Barcelonan Generalitat-aren babespean antolatutako «Hizkuntza Aniztasuna Europan» izeneko kongresuan Ibon Sarasola eus-

kaltzain eta hiriburu hartako unibertsitateko irakasle denak ordezkatu zuen Euskaltzaindia.

Maiatza

HAEE/IVAP erakundeak herri-administrazioaren esku ipini nahi duen EUSKALTERM terminologi-bankuaren «lotura batzordean» Akademiaren ordezkari, Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa azpibatzailearen arduraduna den Andres Urrutia izendatua izan da.

Ekaina

28an, Luxenburgen egitekoa den Europear Idazleen kongresurako gomita jaso delarik, Beñat Oihartzabal euskaltzaina izendatu da ordezkari.

Uztaila

11n, Zuzendaritzak Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia, bere kargua berriz hartukeran bisitatu zuen, Bizkaiko Diputazioa baita Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoekin batera, Euskaltzaindiaren sortzaile.

26an, ikustaldi berbera egin zion Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusi hautatu berriari.

Iraila

6an, Zuzendaritzak Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia izendatu berria bisitatu zuen Probintziako jauregian, beste hiru Diputazioekin batera, Arabakoa ere Euskaltzaindiaren sortzailea baita.


Lino Akesolo euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekide izan denaren hil berria eman zen hileroko batzarrean. Patxi Uribarren urgazle eta ordenakideak eman zuen hurrengo batzarrean haren bizitza eta lanei buruzko txostena.

Azaroa

8an, Zuzendaritzak Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernu buru berriari ikustaldia egin zion, gobernu hori Foru Diputazioa ere denik, beste hirurekin batera, hizkuntz Akademia honen sortzailetariko baita.

29an, Herri erakundeen barneko errotulazioa aurrera eramateko sortu den lantaldea bultzatzeko, Miren Azkarate Akademiaren ordezkari izendatua izan da.

Egun berean, «Emakunde» herri erakundeak sortutako sexista izango ez den hizkera erabiltzeko lantaldekide: Pakita Arregi jendatua izan da.



Lino Akesolo

Barcelonako unibertsitatean izan ziren «Elebiko Irakaskuntzako Ereduak» izeneko mintegian Mikel Zalbide Hiztegitzako batzorde idazkariak ordezkatu zuen Euskaltzaindia.

Abendua

16 eta 17an, Endrike Knörr Jagon sailburua eta Jose Luis Lizundia saileko idazkaria, Institut d'studis Catalans-en egoitzan, «Estat i població plurilingüe» izeneko simposiumean egon ziren, Euskaltzaindiaren izenean.

20an, hileroko batzarrean, Herri-Agintek sortutako «kale eta errepideetako seinale eta adierazleen hizkuntza-azterketa eta normalizazioa» lantalderako Euskaltzaindiaren ordezkarik izendatu zuen Endrike Knörr, Onomastika batzordeburua.

Sarako udaletxean bertan, Euskaltzaindia bildurik zegoela, Jose Migel Barandiaran euskaltzain osoa Ataungo «Sara» etxean hil zela jakin zen, urtarrileko batzarrean haren hutsartea iragarriko zelarik.

1.6. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

1991ko otsailaren 1ean eta 2an Ziburun (Lapurdi) egindako VII. Barne Jardunaldietan eraberritua:

IKER SAILEKO BATZORDEAK

Iker sailburu: Luis Villasante

I. Hiztegi-gintza

Batzordeburu: Ibon Sarasola

Idazkari: Mikel Zalbide

Batzorde hau hiru azpibatordetan banatzen da:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Arduradun: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Segurola

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, M.^a Jose Kerexeta, Elixabet Kruzeta, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

I.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)

Arduradun: Miren Azkarate

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Patxi Altuna, Juan Carlos Odriozola, Andoni Sagarna, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M.^a Larrarte, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Beñat Oihartzabal, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria, Patri Urkizu.

I.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa (EEBS)

Arduradun: Andres Urrutia

Idazkari: Andoni Sagarna

Kideak: Jose Antonio Aduriz, Claude Harlouxet, Jazinto Iturbe, Jose Mari Larrarte, Mikel Lasas, Eneko Oregi, Lourdes Otaegi.

II. Gramatika

Buru: Patxi Altuna

Buruorde: Pello Salaburu

Idazkari: Patxi Goenaga

Idazkariorde: M.^a Pilar Lasarte

Kideak: Lino Akesolo, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Jean Haritschelhar, Alan King, Jose Mari Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Karmele Rotaetxe.

III. Dialektologia

Buru: Francisco Ondarra

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da:

III.1. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)

Arduradun: Jean Haritschelhar
Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain
Kideak: Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria,
Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

III.2. Euskalkien Ikerketa Arruntak (EIA)

Arduradun: Txomin Peillen
Idazkari: Xarles Videgain
Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Iñaki Gaminde, Alfonso Irigoien, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotaetxe.

IV. Onomastika

Buru: Endrike Knörr
Buruorde: Alfonso Irigoien
Idazkari: Jose Luis Lizundia
Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Mikel Gorrotxategi, Andres Iñigo, Jose Mari Jimeno Jurío, Jean Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

V. Literatura

Buru: Juan Mari Lekuona
Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da:

V.1. Herri-Literatura

Arduradun: Antonio Zavala
Idazkari: Pello Esnal
Kideak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Jose Mari Iriondo, Mixel Itzaina, Emile Larre, Abel Muniategi.

V.2. Literatura-Ikerketa

Arduradun: Juan Mari Lekuona
Idazkari: Jon Kortazar
Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Pierre Charritton, Gotzon Garate, Jean Haritschelhar, Jon Juaristi, Jesus Mari Lasagabaster, Luis Mari Mujika, Jean Baptiste Orpustan, Juan Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Bittor Uraga, Patri Urkizu.

JAGON ETA EGITURAZKO BATZORDEAK

VI. Jagon Saila

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Ramuntxo Camblong, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Juan Mari Lekuona, Juan Antonio Letamendia, Jose Mari Satrustegi, Andres Urrutia, Jose Mari Velez de Mendizabal, Patxi Zabaleta, Mikel Zalbide.

VII. Azkue Biblioteka

Buru: Pello Salaburu

Arduradun/Idazkari: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi-eragilea: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Juan Angel Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea.

VIII. Argitarapenak

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile/Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Luis Villasante, Endrike Knörr, Pello Salaburu, Patxi Altuna, Pierre Charritton.

IX. Juridikoa

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Jose Mari Satrustegi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.

BATZORDE SUNTSIKORRAK

Euskara Batukoa

Buru: Luis Villasante

Idazkari: Pello Salaburu

Kideak: Patxi Altuna, Pierre Charritton, Ibon Sarasola.

Bonaparteren mendeurrenekoa

Buru: Jean Haritschelhar

Akademi azpibatzerdea

Luis Villasante, Francisco Ondarra, Txomin Peillen, Beñat Oihartzabal, Jacques Allières, Xarles Videgain, Rosa Miren Pagola, Gotzon Aurrekoetxea, idazkari.

Antolakizun azpibatzerdea

Juan M.^a Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Juan Jose Zearreta, Ricardo Badiola Uriarte, Jose Luis Lizundia, idazkari.

Ohienarteren mendeurrenekoa

Akademi azpibatzerdea

Buru: Juan Mari Lekuona

Kideak: Patxi Altuna, Manex Goienetxe, Jean Haritschelhar, Jean Orpustan, Txomin Pellen eta Endrike Knörr, Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean.

Antolakizun azpibatzerdea

Buru: Jean Louis Davant

Idazkaria: Jose Luis Lizundia

Kideak: Pierre Xarritton, Jose Antonio Arana, Juan Jose Zearreta eta Sü-Azia elkarteko M. Beraxagar.



Zenbait euskaltzain urgazle berri (1991-IV-26)

Ezkerretatik hasita: Juan Kruz Odriozola, Jose Antonio Aduriz, Marxel Ensunza, Itziar Mendizabal, Jon Ortiz de Urbina, Juan Manuel Etxebarria, Rosa Miren Pagola, Pello Esnal, Andrés Urrutia, Patri Urkizu eta Gotzon Aurrekoetxea.

Burtsa-Hiztegia batzordeñoa

Kideak: Jose Antonio Arana, Eusebio Erkiaga, Xabier Gereño eta Gurutz Ansola.

Hiztegi Batuko batzordea

Arduradun: Ibon sasarola

Kideak: Iñaki Segurola, Miren Azkarate, Jose Antonio Aduriz, Andoni Sagarna, Mikel Zalbide, Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu, Luis Baraiazarra.

2. IKER saileko batzordeak

2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu, hots:

2.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

2.1.2. Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF)

2.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

2.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia azpibatzerdea

Orotariko Euskal Hiztegia burutzen ari den lantaldea ohizko lan eta egitekoei lotu zaio 1991. urtean ere, hots, euskararen hitz-altxorren biltze eta aztertze-lanari.

1991 urteko emaitza nagusia Hiztegiaren 5. liburukia argitaratzeko prest jartzea izan da.

Hiztegiaren 5. liburuki honek BER-DAF zatia hartzen du, 786 orrialdetako tamaina du eta bertan 6.968 hiztegi-sarrera ageri dira, 40.000-ren bat adibide sartu direlarik.

Bestalde, urtean zehar 11.539 fitxa berriekin osatu da datu-corpusa: hauetarik gehienak zenbait hiztegiaren azken letrei dagozkie, eta beste batzuek Fedearen propagazioneko urtekaritik atereak dira.

Orotariko Euskal Hiztegia-ren murrizteaz

Jakina denez, urtarrilaren 31-n Euskaltzaindiak Ziburun egin zuen bileran, *Orotariko Euskal Hiztegia* hartzen hari zen tamainaz bere kezka agertu zuen. Horren ondorioz, beharrezkoa ikusten da zenbait aldaketa egitea, hori bai, zeharo bestelako hiztegi bat egiteraino lerratu gabe. Beraz, Hiztegiak oraindainoko egiturari funtsean eusten diolarik ere, adibideen kopurua erabat gutxitzea erabakitzen da, ordainez bestelako azalpenak gehiago landuz eta ugalduz.

Adibideei dagokienez, lehen autore ia guztien lekukotasunak kontuan hartzen baldin baziren ere sarrera bakoitzean, oraingo sistema berriaren arabera, adibideak hitzaren esanahia eta erabilera argitzeko balio du-

ten neurrian bakarrik sartuko dira, eta adibideen murrizte honek lekarkeen informazio gutxitzea modu eskematiko batean ordezkatzeko da, premiazko den aldioro hitzaren bukaeran (eta letra txikian) informazioa osatzeko balioko luketen erreferentziak eskainiz. Esan behar da berrikuntza hauek bereziki VI. liburukian nabarmenduko direla gehienbat. Hala eta guztiz ere, V. liburukian adibideen gutxitzea antzemateko modukoa izan da (ik. liburuki honek hasieran daraman «Advertencia importante» izeneko). Zenbaki bidez adierazirik: IV. liburukiak 827 orrialdetan 3.833 hiztegi-sarrera zekartzalarik, V.-ak 786 orrialdetan 5.968 sarrera hartzen ditu.

Eraberritze edo berregituratze honen ondorioz, espero da hiztegia liburuki gutxiagotan burutzea.

1991.eko lanen zehaztapena

Erredakzioa

Kontuan izan bedi, hiztegiaren adibide-murrizteak direla medio, V. liburukian, sistema zaharrean VI. liburukiarenak izango ziren 400 orrialde sartu direla, hots, 4. erredaktoreen 8 hilabetetako lana. Horregatik ez da apirilera bitartean hasten 6. liburukiari dagokion partearen erredaktatze lana, DAG-etik aurrera.

Abuztu aldera D letra bukatu, eta E-rekin hasirik, urtearen azkeneko EM ingurura heldu zen erredakzio lana..

Testu zuzenketa

Adibideen konprobatze eta zuzentze lanari dagokionez, V. liburukiari dagokion BIB-DAF parte zuzendu da.

Sarrera-buruen zuzenketa eta konprobatzeari dagokion aldetik, BER-DAF osoa ikusi behar izan da epe honetan. Halaber koordinatzaileen bigarren zuzenketak eta adibide-murrizketak makinaratu behar izan dira.

Koordinazio eta zuzenketa

Ohizko zuzenketei, 1991 urtean, adibide eta sarrera-buruen laburtzeak direla medio, beste 400 bat orrialdetako zuzenketa lana gehitu behar izan zaie, 1200 orrialde zuzendu behar izan baitira, gero horiek laburturik, 800 orrialdetan uzteko.

2.1.2. Lexikologi Erizpideen Finkapena azpibatzen

LEF batzordeak 1991. urterako egitasmoan bi lan-alor aipatzen zuten: Hitz-elkarketa/2 liburukia prestatzea batetik, eratorpenaren azterketarekin jarraitzea bestetik.

Hirugarren lan baten beharra ere ikusi zuen, ordea, batzordeak, 1991ko hasieran. Izan ere, Larramendiren hirugarren mendeurrena ospatzeko 1990eko abenduan Andoainen egin ziren Jardunaldien ondoren, Hitz Elkartuen Osakera eta Idazkeraz inolako erabaki-proposamen finkorik egin aurretik, gai honen inguruan galdeketa zabal bat beharrezkoa zela ikusi zuen LEF batzordeak. Bestela, onarpen-maila zabala lortu ezean, erabakiak ezer gutxirako balioko zuten arriskua zegoen. Ondorioz, 1991ko otsailaren 21ean, «LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari» izeneko txostena aurkeztu zitzaion, eta, beronen baimena lortu ondoren, 263 pertsona edo elkarteri banatu zitzaion berariaz prestatutako galdeketa.

Jaso ziren 148 erantzunak bildu, ordenagailuan sartu eta jasotako informazio ugari eta aberats hori sistematizatzeak hilabete luzeak eskatu dizkio LEF batzordeko talde eragileari; Mikel Zalbide, Jose Antonio Adurizek lagundurik, erabat horretan aritu da irailetik 1992ko urtarrilera arte. Lan guzti honen ondorio da «Hitz Elkartuen Osakera eta Idazkera» 80 orritik gora dituen txosten mardula, 1992ko otsailako bilkurarako euskaltzainek esku artean izango dutena. Bi atal nagusi ditu txostenak: lehena, galdeketa erantzunen berri eman eta hortik atera daitezkeen ondorioak biltzen dituena; bigarrena, LEF batzordeak Euskaltzaindiari «hitz elkartuen osakera eta idazkera»z egiten dion erabaki-proposamena (1991ko otsailean euskaltzainei eman zitzaion lehen erabaki-proposamenari egindako oharren arabera zuzendua eta osatua). Hirugarren parte osatzen dute eranskinak.

1991ko urte osoa hartu duen lan honetaz gain, Hitz-Elkarketa/3 liburukia ere kaleratu zen uztailean. Bertan, 185 orrialdetan zehar, hamabi hitz elkartu mota aztertzen dira. LEF batzordeak 1988ko irailean Gernikan eta urte bereko azaroan Uitzin egindako Jardunaldietan aztertuak hain zuzen. Miren Azkaratek hartu du bere gain jatorrizko txostenak berrikusi, talde-lanean egindako oharrak jaso eta guztiari batasuna emateko eginkizuna. Liburuaren bigarren zatian, bestalde, elkarte-mota desberdinei dagokien adibidetegia biltzen da osorik, 250 orrialde inguruan. Urtearen hasierako hilabeteak liburuki honen prestatzei eskaini zitzaizkien, beraz.

Aipaturiko bi lan hauek direla medio, ezin burutu izan du batzordeak Hitz-Elkarketa/2 liburukia kaleratzeko zuen asmoa. Zerbait aurreratu da: 736 orrialdeko adibidetegiko herena inguru sailkatu da, eta, testuari dagokionez ere, zenbait osalan egin dira (beste hizkuntzetako adibideak jaso, liburukia osatuko duten hemezortzi txostenetako edukia eskema orokor batean banatu, etab.). Baina lan luzea dago oraindik egiteko.

Hitz-Elkarketa/2 liburukiak daraman atzerapena konpontzeko, bekadunaren eskaria egin dio LEF batzordeak Euskaltzaindiari; adibidetegia sailkatu, testuinguruak osatu eta txostenen idazketan ere ahal duen neurrian talde eragilekoen lana arindu dezan.

Erator-atzizkien azterketari dagokionez, bost bilera egin ditu batzordeak Donostian. Ondoko hauek dira bilera bakoitzean landutako atzizkiak eta berauen aztertzailerak:

1. Martxoaren 9an: -gai/kai atzizkia Joxe Mari Larrartek; -tu atzizkia Jose A. Aduriz eta Andoni Sagarnak; -garri atzizkia Martxel Ensunzak.

2. Maiatzaren 3an: -kor atzizkia Martxel Ensunzak; -ka, -ki, -ro, -to atzizki adberbiogileak Luis M. Mujikak; -tu (falta zen atala) Jose A. Aduriz eta Andoni Sagarnak.

3. Ekainaren 21an: -eral/-kera (luzera) Luis M. Mujikak; -tasun atzizkia Martxel Ensunzak; -antzal-antzial-(n)za eta -ezia Jose A. Aduriz eta Andoni Sagarnak.

4. Urriaren 11n: -era (luzera) Luis M. Mujikak (txosten berridatzia); atzizki txikigarria (-ñi, -ño, -skal/-ska, -skila, -sko/-xko, -sta/-xta, -to/-tto, -tsu, -txo/xkot) Lurdes Otaegik; -keria atzizkia Tomas Uribeetxebarriak; -ondo (sagarrondo) eta -tze (iratze) Kepa Altonagak; -te (eurite) Martxel Ensunzak; atzizki handigarriak (-kote, -tzar, -zto) Patri Urkizuk.

5. Abenduaren 13an: -goa eta -keta² (jendeketa) eta -keta³ (urketa) Beñat Oihartzabalek; -eria Miren Azkaratek; -tza² (dirutza) Luis M. Mujikak; -tza¹ (bertsolaritza) Patxi Goenagak.

Badira gainera beste hainbat txosten dagoeneko landuak (-di/-doi/-dui eta -ari atzizkiak Miren Azkaratek; -be/-pe Jose Antonio Adurizek; -tegi atzizkia Martxel Ensunzak; -tate atzizkia Jose A Adurizek) batzordeko bileretan irakurri gabeak.

Txosten hauek aztertzean, hitz elkartu mota desberdinekin gertatu zen bezala, garbi ikusten ari da batzordea zein atzizki gertatu den emankor euskara estandarra eratzean eta nolako aldaketak izan dituen atzizki batek baino gehiagok adieraren aldetik edo oinarriaren kategoriari dagokionez.

Azkenik, bada beste gai bat LEF batzordearen arduradunak eta idazkariak, Hiztegitzintza batzordeko gainerako arduradun eta idazkariak bezala, hainbat ordu eskaini diotena: Hiztegi Batua izenpean gauzatu den proiektua definitu eta zehaztea, alegia.

2.1.3. Egungo Euskeraren Bilketa Sistematikoa azpibatzerdea

XX. mendean euskarazko argitalpenetan erabili den lexikoaren berri emango duen programa honek 1991.a zuen bere azken urtea, aldezturirik prestatu zen egitasmo hauekin:

1. Lehen lau urteetan euskal produkzio idatziaren inbentarioa eta sailkapena.

2. Lagin bat hautatzeko eredu estatistikoaren diseinua.

3. 60.000 testu-hitzeko corpus batekin proba pilotu bat egitea.

4. Corpusaren bilketa.

5. Testuak euskarri informatikoan jartzea.

6. Corpus zerrendatuak prestatzeko programa informatikoen garapena.

7. 2.000.000 testu-hitzeko corpusaren %80 hustutzea 8. eta %25 inguru lematizaturik uztea.

1991.urtea EEBS proiektuaren lehen fasea amaitzeko urtea izan da. Corpus osoak hustuta, testu-hitzen erreferentziekin, testuinguruekin eta lemekin egon behar zuen urtearen bukaerarako. Urtearen bukaeran lematizazioaren zati bat egiaztatzea besterik ez da falta. 1992ko hilabete batzuek beharko dira oraindik geratzen den zatia amaitzeko.

Bestalde, EEBS Batzordeak, urteko bere lehen bilkuran Hiztegi-gintza-batzordearen buruari batzorde osoaren jardunaldi bat eskatu zion, aurreko bost urteetan egindakoak zer nolako segida izan beharko lukeen aztertzeko. Abenduan egin zen bilera hori Laurgainen. Bertan EEBS programaren bigarren fase baterako asmoak azaldu ziren. Honekin EEBS azpibatzerdearen eginkizuna amaitutzat eman daiteke.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Gramatika Batzordeak 1990. urteko lana EGLU III: Lokailuak ize-neko liburukiaren argitarapena burutu zuelarik, 1991 urtean eskuarteko gramatika lanari jarraipena ematea zegokion. Hain zuzen, beti ere perpaus elkarketaren barnean, juntadurari zegokion parte hartu zuen esku artean. Helburua juntadura aztertuko duen beste liburuki bat prestatzea zen eta horri ekin zion batzordeak.

Lehenbizi, aurkezpen orokor bat prestatu beharra ikusi da ahalik eta garbier uzteko zer den juntadura eta zein eratako egiturak diren aztertu beharrekoak.

Lau atal nagusitan banatu da, horretaz, lana:

1. Sarrera orokor bat beste guztiaren oinarri edo izango litzatekeena.
2. Emendiozko juntadura.
3. Aurkaritza juntadura.
4. Hautakaritza.

Gai hauen inguruan sortzen diren arazoak aztertzeari ekin dio Gramatika Batzordeak. Lan funtsezkoena amaitutzat ematea espero bazen ere hasieran, gauzak uste baino piska bat atzeratuxeago gelditu dira, emendiozko juntadurari dagokion zatia sakonki aztertzerik izan ez baita. Kontuan izan behar da, gainera, parte hau izango dela, seguru asko, lanaren zatirik zabalena.

1991. urtean bederatzi bilera egin dira -joan den urtean baino aski gutxiago- denak egun osoak, Donostian. Aipatutako lau gai horien inguruan hainbat txosten aurkeztu dira eta bileretan eztabaidatu ere bai behin eta berriro. Gogoan izan behar da hori izan ohi dela aspalditik Batzordeak segitzen duen bidea, hasieran aurkezten dena nahikoa aldatua iristen bait da gehienetan azken itxurara.

Bestalde, txosten hauek idazteko, corpusetik zenbait informazio bildu behar izan da egin nahi den lanaren oinarri izan ohi diren adibideak eskuratu ahal izateko. Hori informatizatua dagoen corpusetik atera da, Hizkuntz Politika Idazkaritzan dagoen terminala erabiliz.

Azkenik, orain arteko lanaren laburpena izango den Gramatika Laburra izenekoak bere bidea darama, dena liburuki bakar batean, gramatika praktikoko gisa aurkezteko bere garaian.

2.3. DIALEKTOLOGIA BATZORDEA

2.3.1. *Euskalkien Ikerketa Arruntak azpibatzen*

1991. urtean maiatzetik abendurarte garrantzitsua izan da dialektologiak hartu duen lekua, bereziki Euskaltzaindiak Louis-Lucien Bonaparteren omenez antolatu duen Nazioarteko Dialektologia Biltzarrari esker.

Euskalkien Ikerketa azpibatzenaren lan gehienak gertakari horren inguruan egin dira.

Biltzarraren ingurukoez bestalde berarentzat espreski lan bilkura bakar bat egin zuen batzordeak 1991-02-08an, taldearen urratsak finkatu nahian. Aurretik zehazturik ziren lan-egitasmoak errepikatu ziren:

1. «Salbamendu» inkestagintzaren segida
2. Etnotestuen bilketa
3. Lexiko berezituen bilketa eta tratamendua.

Lan-egitasmo horiek bete nahian, ondoko eskakizunak aurkeztu zizkion batzordeak Euskaltzaindiari, martxoan egindako bilkura batean:

1. Dialektologiaren frutuak aintzat hartuak izatea.
2. Egiten diren lanen argitaratzeko irtenbidea neurtzea.
3. Jende berriak hartzeko beharra
4. Tresneriaren erosteko ahala.

Baina, egia esan, urriko Nazioarteko Biltzarrak jan zuen batzordearen indar gehiena, batzordearen ibilbide propioa biltzarraren itzalean egon zelarik. Modu batez edo bestez beren aburua eman zuten biltzarraren gaiak eta hizlariak hautatzerakoan. Sei batzordekideek txosten bana aurkeztu zuten Biltzarrean, ondoko zerrendan ikus daitekeen bezala. Euskaltzaindiak antolatu Biltzarraz bestalde, kongresu, kolokio, emankizun, eztabaida askotan parte hartu zuten batzordekideek.

Horra behintzat Nazioarteko Dialektologia Biltzarrean batzordekideek aurkeztutako lanak:

- Gotzon Aurrekoetxea: «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren informatizapena»
- Jose Mari Etxebarria: «Euskalkietan egindako lehenengo grabaketak»
- Rosa Miren Pagola: «Maila fonetikoa hizkuntz atlasgintzan»
- Txomin Peillen: «Zubereraren bilakaera»
- Karmele Rotaetxe: «Hizkuntz sistema eta dialektologia»
- Xarles Videgain: «Lexiko-bilketaren baldintza zonbait»

2.3.2. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa

Sarrera

Alor desberdinak landu ditu urte honetan EHHA lantaldeak. Baina nagusiki bi zeregin izan dira sakon eta iraunkortasunez landu dituenak 1990. urtean eta ondorenez emankorren suertatu direnak: batetik inkestagintzari ekin diote zenbait kidek toki konkretuetako inkestak bukatu asmoz. Datuak informatizatzeari ere ekin diote beste batzuk.

Hala ere izan da bestelako langintzarik: proiektuaren informatizapenaren II. fasea zehazten hasi da, Nazioarteko Dialektologia Biltzarrak sortutako lanak.

Lan hauetan biltzen da, beraz, EHHA lantaldearen iharduna 1991. urtean.

Inkestagintza

Aurreko urteetako lanari jarraituz 1991. urtean honako inkesta hauek amaitu dira:

- Bizkaian: Ondarroa, Berriz, Bolibar eta (Markin-) Etxebarri.
- Gipuzkoan: Ikaztegieta.
- Nafarroan: Alkotz eta Arbizu.
- Nafarroa Beherean: Bidarra, Gamarte, Garruze, Arnegi, Uharte Gar., Esterenzubi eta Landibarre.
- Zuberoan: Urdiñarbe eta Altzai.


Une honetan inkestagintza egoera honetan dago:

Jasoketa

Inkesta guztiak jasota daude bi inkestapuntutan izan ezik: Urketa Lapurdin eta Abaurregaina Nafarroan. Bi puntu hauetan ere ezer gutxi falta da inkesta osoa jasotzeko. Beraz, esan behar da amaitu dela inkesten jasoketa.

Transkribaketa

Inkestak jaso ondorengo transkribaketak aurrera darrai. Une honetan herri hauetan falta da transkribaketa burutzea: Bardoze, Arboti, Armentaritze, Arruta, Domintxine, Montori, Altzürükü, Zugarramurdi, Eugi eta Eaurta.



1. taula: inkestagintzaren bilakaera

2. Egungo egoera %tan

Bada beste herri multzo bat zeinetan zertxobait falta den bukatzeko: Donibane Lohizune (espezifikokoak transkribatzea), Uztaritze eta Beskoitze (morfologia transkribatzea), eta Irisarri eta Legazpi (azken ukiuak). Guztira, beraz, 17 inkestapuntu falta direnak guztiz bukatzeko.

Inkestagintzako urtez urteko datuak aztertuz honako hauek eskaintzen dira:

1987an 33 inkesta bukatu ziren
 1988an 36 inkesta bukatu ziren
 1989an 25 inkesta bukatu ziren
 1990an 19 inkesta bukatu ziren
 1991an 15 inkesta bukatu ziren

Aurreko datuetan eta ondoan den taulan garbiki azaltzen den bezala inkestagintzaren bigarren urteaz geroztik erritmoa mantsotu egin dela nabarmenki agertzen da. Beherago aipatu arrazoiak alde batera utziz aurrez egin kalkuluak ez betetzera eraman du lantaldea. Aurreko ekitaldian ikusi bezala oraingoan ere berriro esan beharko da ez dela heldu aipatutako helburuetara. Hala ere, garai hau bukatzeaz dago une batetik bestera inkesten datu sarrerari ekiteko.

HERRIALDEA	EDINDA	EGITEN	GUZT.
Bizkaia	36	0	36
Araba	1	0	1
Gipuzkoa	35	1	36
Nafarroa	23	4	27
Lapurdi	10	5	15
Naf. Behera	14	4	18
Zuberoa	9	3	12
GUZTIRA	128	17	145


3. taula: inkesten taula

Nahi eta uste baino neketsuago ari da gertatzen inkestagintzaren amaiera. Kosta egiten da bere azken urratsak ematea arazo desberdinak direla medio.

Hauen artean aro honetarako egin kalkuluen desegokitasuna aipatu behar da lehen lehenik. Lanaren une honetako perspektibatik begiratuze begi bistakoa da bere garaian inkesta bat burutzeko eta ondorioz inkestagintza osorako egin ziren kalkuluak ez zirela zuzenak.

Tresneriaren zahartze eta etengabeko erabilpenaren ondorio diren matxurek geldiarazi dituzte behin baino gehiagotan lanak.

Dena den, bada beste faktore bat inkestagintza gibelatu egin duena: inkesten aberastasunak eragindakoa, hain zuzen ere. Inkestak aurreratu ahala inkestagileek informazio kopuru ikaragarria sortarazten dute. Informazio hori bildu ahala ondorengo inkestetan praktikan jartzen izan dute eta ondorioz azken inkestak lehenengokoak baino oparoagoak eta aberatsagoak gertatu dira. Eta begi bistakoa denez luzeagoak bai inkesta-unean, bai transkribatze garaian. Arrazoi hau dela eta, ondoko grafikoetan ikus daitekeen moduan (ikus 4. taula), inkesta-puntuen kopurua leunduz joan da 1988z geroztik.



4. taula: inkestagintzaren bilakaera

Informatizapena

Datu-sarrera

EHHAren informatizazioa fase desberdinetan burutzen ari da:

I fasea: datu sarrera.

II fasea: datuen elaboraketa eta mantenua.

III fasea: kartografia.

Hiru fase hauetarik datu sarrerarako aplikazioa 1990 amaieran bukatu zen eta 1991ko hasieran probak egin eta erabiltzaileak, hots lantaldea, trebatuz joan zen.

Urtean zehar hiru lankidek ihardun dute, aldika, lan honetan. Besteak inkestak egiten ziharduten bitartean. Jadanik 4 herritako datuak daude informatizatuak: Bergara eta Andoain Gipuzkoan, Anitz eta Beruete Nafarroan. Sartzen beste hiru herri: Bizkaiko Dima, Nafarroako Etxarri eta Landibarre Nafarroa Beherean.

EHHAk bildu duen informazio eta datu kopuruen azterketatxo bat eginez gero aipatu behar da herriko 6 Mb.tara heltzen dela. Orotara, jaso diren datu guztiak informatizatzen ditugunean, 800 Mb. inguru izango dira. Informazio eta datu kopuru itzela, zinez.

Herri bakoitzeko datuen datu-sarrera hilabete eta erdiz luzatzen da.

Informatizazioaren hurrengo faseen prestakuntza

EHHArako aplikazio informatikoa eraikitzerakoan kontutan izan behar diren azken urratsak hauek lirategi:

- Datu-elaboraketaren azterketa
- Azken emaitzaren definizioa:
- Kartografiaketa
- Atlas akustikoa
- Diapositiba eta argazkien tratamendua
- Kartografiagarria ez denaren tratamendua
- Datu base dialektala

Urtearen hasierako txostenei (X. Videgain «2. faseari buruzko ohar nausiak» eta G. Aurrekoetxea «Datu elaboraketa. Lan-moldea») jarraituz 3 bileran burutu dituzte EHHako arduradunek eta informatikariarekin urtearen hondarrean (91.11.22; 91.12.18 eta 19an) aurretik idazkari teknikoek gaiak zehazturik eraman zituztelarik. Lehen bileran gaiaren nondik norakoak zehazteari ekin zitzaion eta arazoari nolabait aurre egiteko datu-sarreraren aplikazioan egin zen bezalaxe EHHaren arduradunen kezkek eta asmoak bilduko zituen txostena burutzea erabaki zen. Videgainek burututako txosten hau («Bigarren fasearako; EHHa datubasearen egokitze-lanak», 41 or.) bigarren bileran aurkeztu zen, eztabaida hirugarrenean hasi zelarik.

Bide beretik atlas akustiko edo entzungarriaren aukera aztertzeke Salzburg-en H. Goebl-ekin lan-egun batzuk prestatu ditu Zuzendaritza Teknikoak eta gida bat ere bidali dio Goebl irakasleari («Notes préparatoires pour la visite à Salzbourg auprès de H. Goebl»).

Bestelako lanak

Harreman-lanak

EHHako Zuzendaritzak inkestak burutu eta datuak sartu at beste zeregin batzuk ere bete behar ditu bere ihardueran. Honako hauek aipatu beharko lirategi: maila desberdinetako bilerak, alor berean ari diren ikerlarietako harremanak eta gutuneria, ingurutik etorritako eskariak, ...

Euskaltzaindia-CNRS hitzarmena

Igaz bezala, ezer gutxi aurreratu da aurten ere gai honetan. Hala ere hitzarmena sinatzeko behar zen azken urratsa emana da jadanik.

Inkestagintza 1991, abenduark 31a

- Araba: Aramaio zenez herri bakarra bertako inkesta bukatua da.
- Bizkaia: 36 herrietako inkestak amaituak dira.
- Gipuzkoa: Hautatutako 36 herrietatik, Legazpi bakarrik falta da egiteko.
- Nafarroa: 27 herri ziren plangintzan sartutakoak, eta Zugarramurdi, Eugi, Abaurregaina eta Eaurta ezik, beste guztiak eginak dira.
- Lapurdi: 15 herri dira aztertzeakoak eta hauetatik Donibane Lohizune, Arrangoitze, Itsasu, Urketa eta Bardoze gelditzen dira burutzeko.
- Nafarroa Behera: Irisarri, Isturitze, Arruta eta Arbotin jarraitzen dute inkesta hauek, beste 14 finituak direlarik.
- Zuberoa: 9 herri dira egindakoak, Domintxine, Altzürükü eta Montorikoak aurrera doazelarik.

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Batzorde honek azpibatzerde bi sortzea erabaki du, bata Munduko leku-izenak deritzana, zeinek aztertuko bai lituzke Euskal Herritik kanpoko leku izenak. Behar beharrezkotzat jotzen da eginkizun hau, Euskaltzaindiak Euskeran aspaldi argitaratu zituen estatu izenen gehigarri eta garapen legez. Lehendabizi, kontuan izan beharko litzateke euskal exoni-moen bilketa zehatz bat egitea. Bigarren, Ponte-izenenak azpibatzerdea, zeinek aztertu beharko lituzke kristau eremuko antroponimoak, eta baita ere orohar Europako izen historiko, mitologiko eta abar. Langintza honen lehen pausuak eman ditu amaitu berri den urtean, zenbait kontsultari erantzunaz, zenbait txosten eginaz, hala nola Ibon Sarasola, Alfonso Iri-goien, Federiko Krutwig, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundiak. Hauetariko batzuk urtearen azkenaldean batzordeak eztabaidatu ditu. Azpimarratzekoa da, bestalde, Jose Maria Satrustegi batzordekideak ponte-izenaz edo izen-tipiez eraberritze, sailkapen eta zerrendagintza zabalago bat egiteko plangintza-txosten bat aurkeztu duela batzordean, berau eztabaidatzen hasia delarik.

Euskal exotoponimoei buruzko irizpideak finkatzeko proposamen bat ikusi da, *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik biluzketa bat eginaz.

Euskal deituren alorra


Bai egoitza eta baita ordezkartzetatik laureun egiaztapenetik gora egin dira 1991. urtean zehar, euskal deituraren egungo grafia akademikora aldatzeko ziurtapen agiritan. Horiez gain 37 deitura zail edo arazodun, banan banan ikertu, eztabaidatu eta onartu dira.

Estatuko Justizia Administrazioaren «Adaptación del Apellido a la grafía vasca» deritzana aztertu da, zeinetan Euskaltzaindiari egozten bai zaio eginkizun hori.

Euskal deiturei buruzko ikerketa egiteko bi beka eman dira abenduan. Bekadunak, bata historian lizenziatua eta bestea euskal filologian, euskal deituren corpus bat burutuko dute, ortografia arazoak sailkatuz eta egungo euskal grafian jartzeko erabaki proposamenak batzordeari aurkeztuz, hamairu hilabeteko epe barruan.

Herri-izenen irizpenak

Udal izenei buruz irizpen batzuk eman dira, hala nola Laudio, Sunbilla, Atarrabia eta beste batzuen berrikusi. Baita, zenbait udalek eskatuta auzo eta kale izenei buruz ere.



AYUNTAMIENTO

DE LA VILLA DE

31610-VILAVA

(Navarra)

ATARRABIA HIRIKO UDALA

(Nafarroa)

Toponimia bilketak

Batzordea urtean zehar zenbait herritako toponimia bilketaz arduratzen da. Lana nola taiutu, ildo nagusiak markatu, beka oinarriak jarri, ikerketari jarraipena egin, emaitzei euskararen ofizialtasunean zer etekin atera eta abarretan lagundu. Amaitu den urtean Hernaniko udalbarrutia- ren bilketa egin da, batzordeak gainbegiratua eman diolarik. Pasaia eta

Andoaingoa, ia bukatzeaz zeudenak, Onomasticon Vasconiae Euskaltzaindiaren liburu sortan koedizioz argitaratzeko moduan jarri dira, Udalekin hitzartuz. Arrasate, Bergara, Hondarribia eta Barakaldoko toponimia bilketak hasiak dira. Eibarko baserri-etxeen izendegiari berrazterketa bat egin zaio, hiriko udalak eskaturik.

Nafarroako eta Bizkaiko Administrazioentzako lanak

Nafarroako TRACASA foru enpresa publikoarentzat herrialdeko kartografiagintzak batzordekide lantaldeari sortu dizkion toponimia finkatzeari buruzko zalantza eta katramila kasuistika aztertu, gaika arakatu, eta erabaki ditu: fonetika, deklinabide, idazketa, exonimo zahar eta berri, hibrido, hitz elkarketa, oikonimo, hidronimo, oronimo eta bestek sortu dizkietenak.

Bizkaiko foru sail guztien beharritzenen errotulazio publikoetarako toponimia zerrenda finkatuak prestatu dira:

1. Errepide sare osorako izendegi erraldoi berrituarena
2. «Bizkaibus»erako geraleku guztiena
3. Nekazaritza sailaren ardurapeko ia 200 herri-basoren errotuluena
4. Industrialde, parke, atsedenleku, kultur aterpe eta egoitzen izenena.

Kasu guztietan banan banan berraztertu eta ikertu dira, dokumentazio eta lekukotasunak bilatu ondoren, herrialde honen euskal toponimia publikoaren finkapena ziurtatzea izan baita Bizkaiko Diputaziarekin sinatutako hitzarmenaren egitasmoa.

Beste onomastika finkapen solte zenbait

1991 urtean, besteak beste, Euskadi Irratitik eskatutako mendateen bigarren zerrenda bati irizpena aztertu eta eskeini zaio. Gorbeia inguruko oronimoen zerrenda egiten lagundu du, berdin, UZEIren eskariz Araba mendebaldeko zenbait oronimorena ere.

Zenbait erakunde, elkarte eta hiritarrek eskatuta batzorde hau irizti-emaile izan da, zenbait toki-izen, nahiz ponte-izenen finkapena ziurtatuz.

Euskaltzaindiaren bulegoetan, oraindik ere pertsona izenei buruzko egiaztapenak egiten dihardu, nahiz eta Euskal Herrian bertan, geroago eta premia gutxiago egon. Hala eta guztiz ere atzeritik ere galdera asko iristen dira.

Eusko Jaurlaritza, Nafar Gobernu, Foru Diputazio eta zenbait udal-etako galdera bakanei buruzko irizpenak ematen saiatu da, aurreko urteetan bezalaxe.



Onomastika batzordearen bilkura (Iratxe, 1991-III-15)

2.5. LITERATURA BATZORDEA

Batzorde honek bi azpibatzerde ditu:

2.5.1. Herri-Literatura azpibatzerdea

2.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea

2.5.1. Herri-Literatura azpibatzerdea

Zabala da Herri-Literatura azpibatzerdearen lan-eremua, berea bait du, oro har, herriko euskara eta ahozko euskararen eremua. Eta berea bereziki Herri-Literaturarena bere luze-zabalean: kontapoesia, bertsolaritza, ipuinak, antzerkia, esaera zaharrak, pastoralak, herri-narratiba, asma-kizunak, eta abar.

Zabala da era berean azpibatzerde honen jarduna ere, batzerde barneko lanetara mugatzen ez dena. Bere ohizko hiru arloetan dihardu, batetik: ikerketa-, bilketa-, eta zabalkunde-alorretan. Eta, bestetik, harremanetan dago zenbait gizarte-erakunderekin (Unibertsitate, Kultur Elkar-te, Herri-Erakunde eta abarrekin) eta partaide da hainbat jarduera eta ekintzatan, batzuetan batzerde bezala eta besteetan batzerdekideen bidez.

Zabala da azpibatzerde honen zeregina ere. Batzerde ikerle ez ezik, eragile ere bai baita: baliabidegune, topaleku eta bilgune ere izaki.

Horiek horrela burutu zuen azpibatzorde honek 1991ko egitasmoa, honako ekintza hauetan hezurmamitu dena urtean zehar.

Herri-literaturari buruzko II. jardunaldien prestaketa

Prestatuak geratu dira 1992ko martxoan izango diren II. jardunaldiak: erabakiak egunak eta tokia, zehaztuak ponentziak eta txostenak, hitz emanak hizlariak.

Argitarapenak

Azpibatzorde honek bi lan prestatu ditu 1991n zehar eta Argitarapen batzordearen eskuetan utzi, Euskera agerkarian argitara ditzan: 1.«Herri-Literaturari buruzko I. Jardunaldiak: kontapoesiaz»; eta 2. «Erri-ma Uztapideren bertsogintzan».

Kanpo-harremanak

Hainbat harreman izan du azpibatzorde honek, aurreko urteetako lanaren harian eta datozen jardunaldiei begira. Besteak beste, Jesús Antonio Cid, Salvador Rebés, Julio Camarena eta Maxime Chevalier-ekin. Eta baita Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait irakaslerekin eta euskal kultur munduko hainbat lankiderekin ere: Igone Etxebarria, Larringan, Juan Garmendia, Bernardo Atxaga eta abar.

Era berean, hileroko lau bileratan izan dira azpibatzorde honetako partaide Martin Etxeberria Zuloaga eta Juan Manuel Etxebarria Ayesta, herri-narratibagintzan adituak direnak.

Kanpo-lankidetzak

Ugaria izan da han eta hemen herri-literatura azpibatzordekideen lankidetzak eta partaidetza hainbat kultur ekintzatan: bertsolari-txapelketetako epaimahaietan (Jesus Mari Etxezarreta, Gipuzkoako Txapelketan; Pello Esnal, Zarauzko Lizardi sarian.), bertso-paper-lehiaketetan (Joxe Mari Aranalde, Abel Muniategi eta Juan Mari Lekuona, VII. Basarri sarian; Joxe Mari Aranalde eta Antton Aranburu, IV. Orixe sarian).

Bestalde, hor dago Antonio Zavala bertsoak biltzen eta argitaratzen eta herri-narratibagintza suspertzen egiten ari den lan esker gaitza. Baita Emile Larre Iparraldean egiten ari dena ere.

Xenpelar saria

Sari honek 30. urte beteko dituelarik, datorren urterako sariketa berezia antolatzea erabaki du Herri-Literatura azpibatzordeak.

2.5.2. *Literatura Ikerketa azpibatzerdea*

Sarrera

Literatura ikerketa batzordeak literatura eta literatur kritika esparruetara mugatu nahi du bere lana. Helburu hauetan aritzerakoan «Estilistika Hiztegia»ren beharrezana ikusi du gure artean. Esku-liburu eta kontsulta-liburu izango den hau sortzen ari da bere lehen lan bezala.

Euskal literaturaren ikuspuntutik eta euskal literatura ikertzen dabilenentzat erabilgarri izango delakoan egiten du hau. Ez da itzulpen lana gure literaturak berak joera bereziak agertu bait ditu, eta gure literaturaren ezagutzatik sorturiko lana izatea nahi luke.

Estilistika hiztegia

Hiztegi hau osatzeko bide bi jarraitu ditu batzorde honek. Batetik, euskal idazleen hustuketa lana egin du. Iazkoan Juan Antonio Mogel, Aita Bartolome, Bizenta Mogel, Orixe, On Manuel Lekuona aztertu baziren, aurtengoan jarraitu da lan honekin eta pastoralak, Aitzol, Lauaxeta, Jean Etxepare, idazleak aztertu dira, idazleok erabili zituzten estilistika hitz teknikoaren euskal ordeak ezagutzeko asmoz. Beste aldetik, estilistika alorrik alor begiratzen eta hiztegiaren sar daitezkeen hitzak zeintzuk izan liratekeen pentsatzen hasia da.

Horrela batzordeko partaideek beste hizkuntzetan agerturiko hiztegien hustuketa egin dute, eta bakoitzak bere alorra jorratu du, hiztegiaren gutxi gora-beherako tajuera osatu delarik.

Ahozko euskal literaturan agertzen diren hitzen eta arazoei buruzko ponentziak egin dira, ahozko literaturan agertzen diren fenomeno eta zenbait kontzeptu ez bait dute paralelotasunik estilistikan eta literatura jantzian erabiltzen direnekin. Metrikari eta euskal metrikari begirune berezia eskeini die azpibatzerdeak, fenomeno bereziak agertzen ditu euskal literaturak eta. Antzerti munduan agertzen den hiztegia ere errotik aztertu du batzordeak. Erretorika klasikoaren hiztegia hustu dute batzordekideek, eta alor honetan gehien bat erretorika klasikoaren bideak ikusi dituzte, nondik norakoak diren eta nola euskaldundu ditzakegun proposatuz.

Azpibatzerde honen lanak oso kontuan ditu kritikak gaur egun darabiltzan bideak, horregatik astiro eta zehatz hustu ditu literatur kritika, olerti eta narratibagintzaren hiztegiak.

Datorren urtean hiztegiok batzen, zer sartu eta zer baztertu aztertzen hasiko da azpibatzerdea, taiuketa lanetik zehaztasunera joz. Hiztegiaren aipatuko eta definituko diren hitzen zerrenda egin ondoren idazketa lanak hasiko ditu.

Kongresuetara aurkezturiko txostenak

Azpibatzerde honen zeregin garrantzitsuenetarikoa da euskal idazleen omenez ospaturiko kongreso zein mende eta urteurrenetan txostenak aurkeztea. Aurton berebiziko lana izan du J.B. Elissambururen mendeurrenean parte hartzen. Saran abenduaren 20 eta 21ean ospaturiko omenaldian txosten hauek aurkeztu zituzten azpibatzerdeko partaideek:

- Juan Mari Lekuona: Sarrera hitzak
- Jean Haritschelhar: «Leon Elissamburu, goarda, pilotari, olerkari»
- Pierre Xarriton: «Adema eta J.B. Elissamburu»
- A. Arcocha: «Ikusten duzu goizean»
- Patri Urkizu: «Lau andere besta»
- Ana Toledo: «Epikureismo Piarres Adame elaberrian».

Literatura hiztegia

Literatura Ikerketa azpibatzerdea lanean hasi zenetik bertatik, ikusi zen horrelako hiztegi baten premia, ez bakarrik lagungarri ona gerta litekeelako, baizik eta ezinbestekoa ere badelako, ikusiz badirela gaiak oraindik zehaztu gabeak, edo gaurkotu gabeak edota ongi geureganatu gabeak.

Hau dela eta, hasiera-hasieratik erabaki zen hiztegi hau egitea izan zitekeela taldearen lehenengotariko zeregina, inolako luzapenik gabe hasi zelarik hiztegi hau prestatzen.

Eremua markatzea

Hasiera batean, literaturari buruz euskaraz idatzi duten zenbait autore arakatzu hasi zen. Eta estilo nahiz genero desberdinetan zenbait zulketa eta azterketa egin ondoren erabaki zen sail bereziak markatzea zela onena; eta sail bakoitzean espezialduak zirenei hitz zerrenda bat egin-araztea, gero zerrendok taldebarruan eztabaidatzeko, erabateko hitz andana aukeratuz, eta hitz bakoitzak mereziko lukeen tratamendua finkatuz.

Hauek dira 1991an hesitutako sailak, eta berauen arduradunak:

Gaia Arduraduna

- Ahozko literatura: J. Haritschelhar - J. M. Lekuona
- Metrika: J. Haritschelhar - J. M. Lekuona
- Antzerkia: P. Urkizu - Tx. Peillen
- Erretorika: X. Alzibar - G. Aulestia

- Literatur kritika: A. Arkotxa - A. Toledo
- Olerkia: J. Kortazar - L. M. Mujika- K. Otegi
- Kontaera: K. Otegi eta B. Uraga

Hitzen sailkapena

Arduradun espezialdu hauek taldera ekarritako zerrenda guztiak bat-banaka eztabaidatu dira. Bi eratakoak dira bereziki harturiko erabakiak: 1. hartu diren hitzen zerrenda finkatu eta 2. aukeratutako hitz bakoitzak zer-nolako garrantzia izango duen ikusi, eta zein tratamendu emango zaion mugatu.

Orain arteko gogoeten zenbait ondorio

3.1. Nahitaezko puntuak. Euskal literatur prezeptiban badira zenbait gai oraindik erabaki gabe daudenak, hala nola, metrikari buruzko nozio hain erabiliak, zer den puntua euskal poetikan, estrofismoa eta modulu metrikoen nolakotasunak eta izenak, beste auzi espezialduak aipatu gabe.

3.2. Euskarak baditu, halaber, literatur prozedurak eta figurak, teknikak eta estilistika legeak, nahiz eta unibertsalak izan, modu nahiko berezian bereganatu dituenak.

3.3. Beste hiztegieta datozen nozioei buruz dagokien euskal hitza hautatzea erabaki da.

3.4. Gaiaren argigarri eta osagarri euskal exenpluak emateko ahalegina egitea komenigarri dela ikusi da.

Taldean elkarrekin eginiko gogoeten ondoren, hau da une honetan Literatura Hiztegiari buruz azpibatzen hasia duen lana.

2.5.4. Literatura-Sariketak

Zuzenean berak edo laguntza mailan literatura lehiaketetan parte hartzen du Euskaltzaindiak. 1991n hurrengook azpimarra daitezke, alegia:

- Bizkaiko Aurrezki Kutxako babestutako sariak. Sari hauek eraberritu eta gehitu egin dira, Bizkaiko Aurrezki Kutxak Bilboko Udal Aurrezki Kutxarekin bat egin duelarik. Epaimahaikide eta irabazleak hauek izan dira:
 - «Txomin Agirre» eleberri sariketa. Irabazlea: Jean Irigarai Amazonaren deia. Pedro Ursua lanarekin. Epaimahaikideak: Xabier Gereño, Andu Lertxundi eta Arantza Urretabizkaia.

- «Toribio Alzaga» antzerki sariketa. Irabazlea: Luis Haranburu Altuna St. Cyran (Jainkoa gorderik) lanarekin. Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
 - «Felipe Arrese Beitia» olerki sariketa. Irabazlea: Xabier Lete Zentru arzaldatuaren poemategia lanarekin. Epaimahaikide: Bitoriano Gandiaga, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona.
 - «Mikel Zarate» saio sariketa. Irabazlea: Patri Urkizu Agostin Chahoren bizitza eta idazlanak lanarekin. Epaimahaikide: Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza eta Alfonso Irigoien.
- Eusko Jaurlaritzak antolaturiko «Euskal Letren Merezimendua» sariketerako epaimahaikide: Patxi Altuna. Irabazlea: A. Santi Onaindia.
- Gobernu berak babesturiko «literatura lanak sortarazteko lehiaketa» erabakitzeke epaimahaikide: Endrike Knörr.
- Gobernu Zentralak antolaturiko sariketa eta lehiaketetan jaundere hauek ordezkatu dute Euskaltzaindia:
- Juan Mari Lekuonak, «Premio Nacional de las Letras Españolas» en.
 - Jon Kortazar, «Premio Nacional de Poesía» n.
 - Luis Mari Mujika, «Premio Nacional de Narrativa» n.
 - Patri Urkizu, «Premio Nacional de Ensayo» n.
 - Jose Mari Larrarte, «Premio Nacional de Traducción» en.
 - Pakita Arregi, «Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil» en.
 - Endrike Knörr, «Concesión de Ayudas a la Creación Literaria» n.
- Gipuzkoako Aurrezki Kutxak literatura unibertsaleko obren euskaratze sariketa ORIXE lehiaketarako: Patxi Altuna.
- Udal zenbaitek antolatutako lehiaketetan:
- Zarauzkoak «Haur eta Gazteentzako X. LIZARDI literatura sariketarako»: Jose Antonio Mujika.
 - Errenterian jarritako «Koldo Mitxelena II. Saio» lehiaketarako: Patxi Altuna.
 - Getxoko Udalaren Kultur Etxeak antolaturiko «Juan Gorostia-ga» saio sariketerako: Jose Antonio Arana. Irabazlea: Xabier Kintana urgazlea: «Lekukoak hitz egiterik ez» lanarekin.

2.6. EUSKARA BATUKO batzordea

Kontuan izanik Arantzazun euskara baturako oinarriak jarri zirenetik 25 urte beteko zirela Euskaltzaindiak Euskara Batuko Batzordea sortzea erabaki zuen 1991ko otsailaren 22an. Euskara Batuko batzordearen zeregin nagusia da batasunaren bidea oraingoz erabakitzeke geratzen diren hainbat eta hainbat puntu aztertu eta hauei buruzko txostenak prestatu ondoren, osoko bilkuran eztabaidatuko diren gomendio eta proposamen berriak egitea. Batzordea honako lagun hauek osatua da: Luis Villasante, buru; Pello Salaburu, idazkari eta kideak : Pierre Xarritton, Patxi Altuna eta Ibon Sarasola. Behar izan denean, beste lagun batzuek ere hartu dute parte eztabaidetan.

Eratu zenetik lanean gogor ibili da eta hainbat txosten prestatu ditu: lehenik, orain arte Euskaltzaindiak onarturiko erabaki guztien zerrenda bat egin zen, hartarako beharrezko zen materiala eta dokumentazioa bilduz. Horren ondoren, osoko bilkuretan eztabaidatu diren zenbait gai jorratu ditu. Eztabaidatik sorturiko erabakiak aski sinpleak direla ematen duen arren, ordu asko eta luzeen emaitzak izan dira. Erabaki edo gomendio modura labur-labur bilduak.

Euskara Batuko batzordearen lanaren ondorio dira Euskaltzaindiak argitara eman dituen dokumentu hauek:

- «Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz»
- «Bat eta batzuk-en deklinabidea»
- «Iritzi/eritzi»
- «Lerroz aldatzean marratxoa nola jarri»
- «Ordinalak»

Halaber, beste hainbat lan prestatu ditu 1992an argitaratzeko. Orain arte bezala, batzorde hau Gramatika batzordean eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-n erabiltzen diren materialez baliatuko da.

3. JAGON Saila



3. JAGON SAILA

Euskaltzaindiaren Arautegiak bere lehen artikuluan besteak beste, helburu hauek ditu: e) euskararen enplegua aintzinatzea eta f) hizkuntzaren eskubideak zaintzea. Bestalde, bigarren artikuluan, egiteko hauen arauz, Euskaltzaindiak bi sail nagusi dituela dio: Iker eta Jagon sailak.

Jagote lan horretan bi alderdi landu ditu sail honek gehien bat: Hizkuntzaren eskubideak eta euskararen erabilpen zuzena.

Erabilpen zuzenaren alorra lantzen hasi da komunikabide eta erakunde berekexua edo arrenkura agertuz. Adibidez, toponimian eta baita ageriko seinalizapen askotan salatu ditu zenbait udal nagusik egindako okerrak. Pertsona izenetan euskal eta Europako ondare kultural eta historikoa aintzinatu beharra adierazi du zenbait desbiderapen eta ezjakintasunen eraginak ikusirik.

Maiatzean, foru eta udal hauteskunderen aurrean, Jagon sailak alderdi baten eskariari erantzunez, euskara edozein motatako alderdikeriaz erabiltzearen arriskuaz bere kezka bizia agertu zuen, euskara euskaldun guztien ondarea delako, eta hizkuntza hauteskunde gatazkatatik kanpo gelditu behar dela, ezin delarik etekina lortu asmoz, hizkuntzaz baliatu.

Arabian, berriro ere, euskararen aurkako mezu eta iragarki onartezinak zabaldu zirelako, Jagon sailak Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleekin batera, adierazpena prestatu zuen prentsaurreko bat eginez, herrialde guztian triptiko bat barraiatuz eta hainbat erakunde eta elkarteri laguntza eskatuz. Adierazpen horretan Arabaren euskalduntasuna bermatu zuen foru eta udal hauteskunderen kanpaina garaian arabar hiritarren argigarri.

«Araba euskaraz» jaia zela eta, ekainean, sei puntutako adierazpen bat plazaratu zuen, euskararen aurkako eraso, aldarrikapen eta adierazpenak gaitzetsiz, eta baita ere, politika zeregin sektariotarako inoiz erabilia salatuz.

Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait udalen eskariz, Gobernu Zentraren ordezkartzan, estatuko I.N.E.k erakundearen euskararen erabilpen eza dela eta, sailaren kezka eta ardura agertu zitzaion, ordezkariak bideratzeko asmoa agertu duelarik.

Nafarroa eta Gipuzkoako foru administrazioei Iparraldeko euskal izenak eta gainontzeko frantses eremuko euskal exonimoak seinalizapenetan erabiltzea eskatuz, gestio bat egin da.

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak apirilaren 8an euskararen erabilpenaz emandako epaia aztertu da, iritzia emanez azalduz.

Frantziako Errepublikako auzitegietan Iparraldeko euskaldunak gure hizkuntza ezin erabiltzeagatik hango Justizia ministrari salakuntza-gutun bat egin zaio.

Iparraldean, Euskal Kultur Erakundearekin batera, herri izenak euskaraz ongi ezartzen eta lagundu du.

Jagon sailak, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkarietatik, estatu administrazioekiko itzulpen ugari egin edo egiaztatu ditu, Administrazio Zentralak Gasteizen duen ordezkarietaren bidez ofizialki tramitatu ohi duenez. Adibidez, zenbait ministeritza eta erakunde askok eskaturik, errolda, hauteskunde, DNI-NAN eta abarretako publizitate kanpaina, gidaliburuak, inpreseriak, organigrama, etab.

Dirección General de Instituciones Penitenciarias delakoan gestio bat egin da presondegietan euskararen erabilpena jagoteko.

Prensa-zabalkunde bidez, Instituto Cervantes-i buruzko adierazpen bat barraiatu da euskarak ere atzerrian bere lekua izan dezan.

Hilero, euskararekiko prentsa-dossierrak prestatu ditu Jagon sailak berari dagozkion gai eta albisteak bilduz, 600 gora mozkinen hustuketa eginez. Baita ere 48 txosten eta idazlan berezi bildu eta fitxatu ditu.

Egunkari batetan ezarritako euskarari buruzko iragarpena salatu zen, bertoko zuzendaritzaren erantzun baikorra lortuz.

HABEko patronatoan Jagon saila ordezkatua dago Endrike Knörr sailburuaren bidez, herri erakunde horren jarraipena eginez. Bestalde, igaz bezala, LETRAKIT, euskal alfabetatzeari buruzko azken erakusketetan parte hartu du sailak.

Herrialde zenbaitetan hizkuntz txikien babes eta sustapenez egin diren kongresu edo jardunaldiez arta izan du.

Mikel Zalbide sailkidearen «Jagon sailaren lan jarduna: zer eta nola» eztabaidarako txostena mardula aztertu da. Bertan, euskara jasotzeko asmoak bete ahal izateko zenbait baldintza zehazten ditu. Hala nola, gidaritza akademikoa; aginteen babes eta ekimenak; baliabide teknikoak eta beste.

Gogoeta hauek eztabaidatu eta garatzeko asmoa du Jagon sailak jardunaldi berezi batzuk antolatuz. Bertan, horien egitaraua finkatu da abendu-ko batzarrean «Euskalgintza eta eremu desberdinak» izenburuarekin.

4. Akademi Zerbitzuak

4.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Eremu hau, erakunde eta jendearekiko harreman eta beste biderapen arazoei arta eta irteera ematen saiatzen da. Orokorki egoitzatik eta bereziki herrialde erakundeak direnean, bakoitzari dagokion ordezkaritza-tik.

Erakunde akademikoei buruzkoak izan dira, Estatu eremuko «Real Academia Española de la Lengua», «Institut d'Estudis Catalans», «Real Academia de la Lengua Galega» eta «Academia de la Llingua Asturiana»-rekin. Noiz behinka, beste hizkuntza batzuetako Akademia edo Erakundekin ere izan dira harremanak: frisiara, galesera, flamendera, etab. Beste-lako unibertsital edo/eta kultura erakundeekin ere elkarlan, harreman, trukaketa, informazio eta abar ugari izan dira.

Herri Aginteen administral erakundeekiko harremanek garrantzi handia dute Euskaltzaindiaren baliabide eta eginkizunetarako. Hain zu-zen, Hego Euskal Herriko Herri Agintee-kiko Jarraipen Batzordea eratuta dago, honako jaun/andere hauek osatzen dutelarik: Eusko Jaurlaritzaren izenean, M. Karmen Garmendia, Hizkuntza Politikarako idazkari Nnagu-sia; Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioaren izenean, Hizkuntza Po-litikarako izendatu berria den Jose M. Rodríguez Ochoa; Bizkaiko Foru Diputaziotik, Kulturarako diputatu jarraitzen duen Tomas Uribeetxeba-rria; Araba eta Gipuzkoako Foru Diputaziotik, Pedro Ramos eta M. Jesús Agirre, Kultura diputatu urtearen zehar izendatu berriak. Batzorde hone-tan, Euskaltzaindiaren izenean, euskaltzainburua, idazkaria eta diruzaina egon dira. Berauen ordezko: buruordea, idazkariordea eta ekonomi eragi-lea. Jarraipen Batzorde honen esku izan dira harreman nagusiak. Ekono-mi eta administral arazoak bideratzeko, Ramon Berriozabal, Mirari Alber-di eta Joseba Alkalde, Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta Juantxo Ziganda Nafarroako Gobernuaren aldetik, Jose Antonio Arana Martija diruzaina, Juanjo Zearreta ekonomi-eragilea eta Jose Luis Lizundia idazkariordeare-kin, dagozkien gai teknikez harremanak izan dituzte. Guzti hau Oñatiko Unibertsitatean 1989ko urriaren 7an sinatutako hitzarmenaren arabera.

Gobernu Zentraleko Hezkuntza eta Kultura ministeritzekin lan zu-zenak izan dira. Estatu Administrazioarekiko orohar, beronek Gasteizen duen ordezkaritza-rekin ere harreman ugari izan dira, bereziki, Jose Anto-nio Aguiriano ordezkari izendatua izan denetik eta gehien bat Euskal-tzaindiaren Arabako ordezkaritza-tik gauzatuak, hala nola: itzulpen ofizial,

Jagon saileko arazo eta beste. Idazkariordetzari dagokionetik, urtean zehar egindako jardunaldi, bilkura, ospakizun eta Euskaltzaindiaren eginkizun ororen plangintza ibilpide eta eraketa hasi eta burutu ditu, batzutan zuzenki, eta gehienetan, Ekonomi, Biblioteka eta Argitarapenen-eragileen eta administrarien laguntza eskergaz baliaturik. Batzordeen eta programa nagusien langintza ere, bertatik koordinatu da.

Jendearekiko kontsulta, itaun eta posta harremanak, egunetik egunera ugalduta, hor sartzen direlarik, egoera, euskararekiko ikerketa, normalizapen erakundetze eta beste sailkatu ezinezko puntu asko. Euskaltzaindiaren zeregin akademikoez, funtzionamenduz eta batzordeez, argibide ugari eman da, adibidez: bulegoetara eta Erriberako Bibliotekara, Iraile, Habe eta beste zenbait eskola eta euskaltegitatik taldeak hurbildu dira, hizkuntzarekiko berarien atxikimendu eta jakin nahiak agertuz. Euskal Herritik zein atzeritik etorritakoak ere, lan premiatsua suposatzen dute egoitzarentzat eta baita ordezkariarentzat ere, azken hauei Arautegiko 34. artikulua egotzen bait die batipat eginkizun hau. Udagoienaz geroztik, Plaza Barriko egoitzatik hasi dira lan hauek egiten, lehenago Elkano kaletik edo Erriberatik bezala.

Ordezkaritzek beraien lan eta harreman zerbitzuetarako bulego erosoak dituzte, Donostian, Gasteizen eta Iruñean, bertako Foru Administrazioei esker. Donostian, ordezkari-tza-bulegoaz landa, Mariñel kalean *Orotariko Euskal Hiztegia* egiteko etxebizitza bat errentan hartua du Euskaltzaindiak.

4.2. AZKUE BIBLIOTEKA

1. Egitura

Nahiz eta bibliotekak itxita iraun 1990ko otsailaren batetik, ez dira honako barne lan arruntak egin gabe utzi, hau da, liburu eta aldizkarien erosketa eta lorpenak, artxibu lanak eta, ikusiko denez, ondare berezien eskuratze eta katalogazio lanak. Baina 1991. urtean lan arrunt hauei beste bat erantsi zaie, hots, Erriberako egoitza historikotik Plaza Barriko egoitza berrira bibliotekako ondare osoa tokiz aldatzeko egin behar izan diren prestakuntza eta garraio lanak. Azken eginkizun honek lanean zeuden bi langileei hirugarren bat gehitzea eskatu zuen, 1991ko irailean hasita laguntza eman zuelarik.

2. Liburu eta aldizkarien sarrerak

Ekintza honek ez du etenik izan, jendearentzat biblioteka itxita egon arren, lan honen iraupena urtean zehar 5.445 aleen sarrera eta erregistroak adierazten duenez. Azken zazpi urteotako sarreraren kopurua eta balioa jarraian datorren laukian ikus daiteke:

Urtea	Erosiak/ harpide- tzaz	Aleak balioa pzta.	Dohainik/ trukez	Aleak balioa pzta.	Guztira	Aleak. balioa pzta.
1985	1.640		3.516		5.156	
1986	1.376		4.682		6.058	
1987	1.590	1.735.140	6.074	1.773.965	7.664	3.489.105
1988	753	1.448.938	4.675	1.819.635	5.428	3.268.573
1989	3.158	4.457.911	4.006	1.545.154	7.164	6.003.065
1990	1.032	2.485.199	4.887	3.206.283	5.919	5.691.482
1991	860	1.056.823	4.585	1.720.245	5.445	2.777.068
	10.409		32.425		42.834	

Aurreko urteetan baino ale gutxiago erosi eta harpidetzaz hartu direla nabaritzen da aipatu laukian, tokia aldatzeko prestakuntza eta garraraioa egiteko iragan diren hilabeteetan ezin izan dalako behar den bezala lan hau burutu. Baina dohainik eta trukez hartzen diren aleak normalki eskuratuak izan dira, biblioteca eta artxibuko ondarearen gehitzea funtzeskoa eta luza ezina baita, gero bete ezinezko hutsunea gerta ez dadin. Hau hala delarik, dohainik eta trukez jasotako aleen portzentaia, nabariri gehitu da, %84 baitira bide honetatik lortutakoak, erosketak ordea %16ra jaitsi direlarik.

Iragan den urtean beste lan garrantzitsu batzuk burutu dira, hala nola, artxibu historikoa taiutu, idazlan bereziak identifikatu, aldizkari batzuen bildumak osotu eta egoitza berrian ondarea kokatzeko lanak arautuak izan dira.

3. Egoitza berrira aldaketa

Aldizkariarentzat apalategi zabalduak eta liburuentzat eta artxiburako apalategi itxiak, denak berriak, abuztuaren baterako jarrita zeuden. Irailaren 4a, gogoangarria gertatu zen Azkue Bibliotekaren historiarako, egun horretan hasi bait zen egoitza berrian lanean bibliotekako langilegoa, ordurako liburu eta dokumentazioz beteriko 1.700 kutxa bertan zudelarik. Beraz, Azkue Bibliotekaren instalazioa prest zegoen Nazioarteko Dialektologia Biltzarrarako, egoitzaren inauguraziarekin batera, urriaren 21ean hasi zena, hain zuzen.

Baina eginkizun geratzen da oraindiño aldaketaren bigarren fasea, Etxebarriko biltegian bait daude ekartzeko liburu eta aldizkariak. Biblioteca eta artxibuko ondare baliotsua eta erabilgarria han dago.

4. Informatizazioa

Egin ahal diren saialdi guztiak egin arren, bibliotekaren informatizazioak ez du epe laburreko ebazpiderik. Hainbat sistema ikertuz gain, bi

aukera bakarrak aurkezten ziren: gure bibliotekari dagokion berezko sistema hartu, Opsy, Sabini edo Bull, eta azken etxe honen dokumentu ondarea erabiltzeko Mistral programa, Azkue Bibliotekako langileek uztailearen 19an Bizkaiko Foru Artxiboan aztertu zutena; edo Jaurlaritzako Kultura Sailak biblioteken sarea sortzeko proiektaturik zeukana burutu harte itxaron. Azken hau, dirudienez baztertua izan da. Baina 1991ko irailaren 18an, Ikeder enpresak Azkue Bibliotekari Kultura sailean informatizazioarako plangintza aurkeztuta zeukala jakin arazi zion, beste biblioteka batzuekin lotura informatikoa lortzeko gai zena, ondare zaharrak eta egunerokoak sistematikoki informatizatzeko. Plangintza hau ere ez dela bidegarria dirudi Kultura sailak bere aurrekontuetan izan dituen mozketen eraginez. Azkenean norberak berea egitea da ikusten den bide bakarra, 1992an informatizazio propioa burutu beharko delarik. Hau hala ikusirik, irailaren 5ean Zuzendaritzak egin zuen bileran, katalogatzaile lanpostua sortzea proposatu zuen, Jarraipen batzordeak irailaren 18an proposamena onartu zuelarik.

5. Fonoteka

Pelota kaleko etxebizitzan gordetzen ziren Euskal Herriko Hizkuntz Atlasen zintak irailaren 23an egoitza berrira eramanez izan ziren. Zinta guzti hauek eta Azkue Bibliotekak dauzkan beste batzuk ere euskarri iraunkorragoetara pasatu behar dira, ez bakarrik hobeto kontserbatzeko baizik eta errazago billatzeko, entzuteko edo berehalako kopiak egin ahal izateko. Zinta guztiak kontserbatzeko eta erabiltzeko toki berezi bat utzi da egoitza berrian, baldintza teknikoak betetzen dituen. Baina soinu grabaketaren arloan diren aurrerakuntza tekniko azkarrak ikusirik, fonotekarako proiekturik gaurkotuena eta ekonomikoena ikertzen ari da biblioteka. Helburu hau ere lortu behar da egoitza berrian 1992an.

6. Erakusketak

Luis-Lucien Bonaparte printzearen heriotzaren mendeurrenean hiru erakusketa antolatu ditu Azkue Bibliotekak haren idazlan argitarapen eta ikonografiarekin. Lehena Londreseko British Library-n, bertako Geoffrey Westek, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Jose Antonio Arana Martija eta Pello Salaburuk euskaltzainek emandako hitzaldiekin zabaldu zen otsailaren 8an, apirilaren 14a arte iraun zuelarik. Bigarrena, Bilboko egoitza berrian zabaldu zen urriaren 21ean, Nazioarteko Dialektologia Biltzarra hasi zenean, eta egoitza berri horren inaugurazio egunean, azaroaren 15a arte zabalik egon zelarik. Hirugarrena Baionako Udal Bibliotekako Ducerée gelan zabaldu zen abenduaren 6tik-20ra arte.

Erakusketa hauen aurretik David Abajo diseinugileak prestatutako kartela banatu zen urtarrilean Euskaltzaindiarekin harremanetan dauden kultura erakunde, biblioteka eta unibertsitateetara. Halaber, mundu guzti-ko toki berdinetara igorri zen ekainean diseinugile berberak eginiko beste txartel bat Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren berri ematen zuena. Igortze guztiak orduan Erribera kalean zegoen bibliotekatik egin ziren.

Gernikako Alegria jauregian urtarrilaren 11an inauguratu zen Euskal Herriko Museorako hainbat kartel, grabatu, mapa eta liburu utzi zituen Azkue Bibliotekak.

7. Argitarapenak

Azkue Bibliotekaren bigarren katalogoa Bibliografia Bonapartiana dakarrena, J.A. Arana Martija bibliokeriak prestatu du, baita Bonaparteren euskal lanak biltzen dituzten lau tomoak *Opera Omnia Vasconice* izenburupean. Bonaparteren mendeurrena dela eta, erakusketen katalogoak ere prestatu dira biibliotekan.

8. Eskuratu diren ondare bereziak

Historiaz eta musikaz hain aberatsa den Jose Maria Olaizola Azkue jauna zenaren biblioteka eta artxiboa Euskaltzaindiari ematea erabaki zuten familiakoek martxoaren 20an. Zumaiako monja karmeldarren ikastetxean kaperau izan zen Txomin Agirre euskaltzainaren ondoko izan zen Olaizola jauna eta Bilboko Katedraleko lehen kaperamaisu.

Harreman eta negoziazioa luzeak izan ondoren, eta Patxi Zabaleta euskaltzainaren eta Jose Luis Elkoro jaunaren laguntzaz, Telesforo Monzon jaunaren alarguna den Maria Josefa Ganuza andereak bere biblioteka Bergarara eramatea erabaki du, non Azkue Bibliotekakoek sailkatu eta katalogatuko duten.

4.3. ARGITARAPENAK

Erakundeko eremu honek azpiatal bi dauzka, alegia:

4.3.1. Argitarapenen-batzordea

4.3.2. Argitarapenen-banaketarako zerbitzua


4.3.1. Argitarapen batzordea

Euskaltzaindiak, 1991. urtean, batzorde honen ardurapean, hurrengo liburukiok argitaratu ditu, hots:

1. *Euskera* agerkaria (1991,1). Manuel Larramendiren hirugarren mendeurrenean» «Larramendiren hirugarren mendeurrena»; «Larramendiren haurtzaroko urteak»; «Larramendi, un guipuzcoano transplantado y vuelto a implantar»; «Manuel Larramendiren mendeurrenean»; «Jesusen lagundiko A. Manuel Larramendiren jaiotzako hirugarren mendeurrena»; «Onomastikaz hirugarren jardunaldien ondorioak»; «Letra larrien erabileraren euskaraz, Euskaltzaindiaren Gomendioak»; «Euskararen eboluzioa Lizarrerian/El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica»; «Noiz hil zen

Axular?»; «Biografía bonapartiana»; «R.M.^a Azkueren Cancionero Popular Vasco aurkeztean»; «Cancionero Popular Vasco liburukien berrargitarapena»; «Orotariko Euskal Hiztegia/Diccionario General Vasco IV. liburukiaren aurkezpena»; «Letrakit»; «Georgiarako bidaiaren txostena»; «Euskaltzaindia Israelen»; «1991. urterako Euskaltzaindiaren egutegia»; «Araba eta euskara/Alava y el euskera»; «Euskaltzaindiko batzordeen-organigrama»; Euskaltzaindiaren batzar-agiriak.

2. *Euskera* agerkaria (1991, 2). Jean Duvoisin heriotzearen mendeurrena. «Jean Duvoisin kapitainaren heriotze-mendeurrenean»; «Donibane Ziburu, euskal literaturaren iturri»; «Euskarazko lehen Biblia egin zuen kapitainaren lanak eta minak (1859-1864)»; «L.L. Bonaparteren erakusketa British Library-n»; «L.L. Bonaparteri Euskal Herritik omenaldia»' «L.L. Bonaparteren erakusketa: Bonaparte, forerunner of modern dialectology»; «Gratefulness»; «Euskaltzaindiko egoitza berria hartzea»; «Euskaltzaindiaren egoitza honen historia»; «Euskaltzaindiaren egoitza berriari buruzkoa»; «Euskaltzaindiaren erregela bereziak»; «Euskaltzaindiaren erabakiak»; «Euskaltzaindiaren adierazpenak»; «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak»; «LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari: Jean Baptiste Etcheberry (bere biziaren ilun nabarrean hamahiru liburu idatzi dituena)». «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)». «Errima Uztapideren bertsogintzan»; «Estilistikaz lehen jardunaldiak»; «Gernikako euskal jaien (1888) oroitzapenetan estilistikaz lehen jardunaldiak»; «Grezia-Erromako (idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz)». «Axularren estilistik»; «Un toro estilista: del diálogo platónico al monólogo de autor».




3. *Euskera* agerkaria (1991, 3). Euskaltzaindiko egoitzara sartzea. «Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia»; «Agintariak, euskaltzainak, jaun-andreak»; Beñat Oihartzabalen Euskaltzaindian sartzea; «Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak»; «Herri-Literatura: lehen Ihardunaldiak: «Ultimas investigaciones sobre el romancero catalán»; «Kontapoesiaren modulu metrikoak Hegoaldeko usuarioan»; «El bilingüismo en el romancero gallego para György»; «La música en los romances»; «Leku eta jendeak XV. mendeko zuberotar eresietan». «La chanson narrative au Béarn»; «La balada vasca y la balada europea: perspectivas de estudio»; «Baztango hizkeraz ohar batzuk»; «Fr. Juan Ajuriaren idazlanak (1800-1825)»; «Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan»; «Exotoponimoen euskal formaz»; «1992. urterako Euskaltzaindiaren egutegia»; «Piztia hitza eta abar»; «Hiztegitzarako hirugarren Ihardunaldiak»; «Euskaltzaindia euskal hitz-altxorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea»; «Euskara Batuko lexikoaren plangintzaz zenbait gogoeta». «EEBS proiektuaren bigarren fasea: abiaburua, helburu estrategikoak eta epe laburreko asmoak»; «Hiztegi batua: lanketa eta onespren prozedurak»; «Burtsako hiztegia». L.L. Bonaparteren *Opera Omnia Vasconice* lau liburukien aurkezpena»; «Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiak antolaturiko sarien banaketa»; Euskaltzaindiaren batzar-agiriak.

4. Onomasticon Vasconiae 4: *Actas de las primeras Jornadas de onomástica. Toponimia /Lehen onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia*. Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratua.

5. Onomasticon Vasconiae 6: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*. Jose Maria Jimeno Juriok prestatua. Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin argitaratua.

6. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*. Bi liburuki. Pedro de Yrizarrek prestatua. Gipuzkoa Donostia Kutxaren babespean argitarazia.

7. L.L. Bonaparteren *Opera Omnia Vasconice*. Lau liburuki. Berargitarapena Jose Antonio Arana Martijak paratua. Iberdrolaren babesaz argitaratua.



8. *Katalogoak (2)/ Catálogos (2)*: Bibliografía bonapartiana. Jose Antonio Arana Martijak prestatua.

9. *Euskaltzaindiaren Oroit-idazkia* (1990). Erakundeak 1990. urtean buruturiko ekintza, lanen zehaztasunak eta azalpenak eskaintzen dituen argitarapena.

4.3.2. Argitarapen-banaketa

Zerbitzu honek urteroko *Oroit-Idazkietan* esan bezala, *Euskera* agerkariak abonatuaren kopurua 500 batetan mantentzen du. Orainarte urteko bi liburuki argitaratu izan dira, aurrerantzean urteko hiru egingen dira. Trukea 110 batekin egiten da, hauetariko batzuk, Euskaltzaindiari igortzen dienaren arabera, Euskeraz gain, beste zenbait argitarapen ere jasotzen dute. Beste 30 batek Akademiak argitaratzen duen guztia jasotzen dute.

Egoitzara zuzenean heltzen diren eskariak, Bibliotekari edo barneko beste eremuetara zuzendutako denetarikoa liburu eskariak, igortzearen lana ere betetzen du zerbitzu honek. 1991. urtean 12.188 ale saldu dira. Dohain edo trukean 3.400 ale banatu ditu: Aurkezpenetan, euskaltzainei, barneko batzordekideei, Euskaltzaindiaren langile eta bestelako lankideri batez beste.

Urtero bezala Durangon, abenduaren 5, 6, 7 eta 8an egindako XXVI. Euskal Liburu eta Disko Azoka Nagusian bi stand prestatuz lanean aritu zen Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. Bertara, 800 liburuki, 90 argitarapen tituluri dagozkienak eraman zituen, 9 langilek parte hartuz lana burutzeko: bana Araba eta Gipuzkoako ordezkarietatik eta beste zazpiak egoitzakoak. Azoka Nagusi horrek eskainitako aukeraz baliatuz, urtean egindako argitarapen berrien aurkezpena egiteko parada izaten da, besteak beste hauexek izan dira aurkeztutako berriak: Morfologia del verbo auxiliar guipuzcoano; Hitz-elkarketa/3 LEF batzordearen lanak; *Opera Omnia Vasconice* (Luis Luciano Bonaparte Printzearen itzulpen lanak) eta *Katalogoak (2)*: Bibliografía bonapartiana.

LIBER'91 delakoa Madrid-en ospatu zen, ekainaren 25-29 bitartean «Recinto Ferial de la Casa de Campo» deritzon Erakustazokan IFEMA delakoak antolaturik, aurrekoetan aipatu izan diran beste zenbait Erakunderen babesarekin. Eusko Jaurlaritzak EUSKADI Stand bakarra jarriaz Erakusketa Nagusi horretarako. Gonbitea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailak luzatu dio Euskaltzaindiari urtez-urte 1986. urtean hasita: Eusko Jaurlaritza, Legebiltzarra, Foru Diputazioek, Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateek, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Editoreen Elkarteak stand berean kokatuz beraien argitarapenak aurkezten dituzte. Euskaltzainditik, Argitarapen banaketa zerbitzuaren arduraduna den Rosa M. Arza eta Josune Olabarria erakundearen bibliotekako lankidea, bertan egon dira hiru egunez, standeko orduz gain, argitaratzaile eta banaketa edo salmentaz informatika alorrean zenbait etxek eskainitako aukeraz,

programak ikuskatuz, e.a., Euskaltzaindiarentzat baliagarri eta aurrerapide gerta daitezkeenak.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkariak eskaria bezetaz Pariseko «Expolangues» eta Madrileko «Expolingua» erakusketetan *Argitarapen-katalogoa* eta *Euskaltzaindiaren Historia Laburraren* banaketa egin da.

4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1991. urtean zenbait itzulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitarapen-eragileak. Eginiko itzulpen eta kontsulta gehienak hurrengo erara sailkatzen dira, hots:

Erakundeak:

Gobernu Zentrala (ISBN), Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Foru Gobernuia, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A., Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka/Feria de Muestras Internacional de Bilbao, Telefónica, Cadem, Bizkaiko Ingeniarrien Kolegio Ofiziala eta Osakidetza.

Banku eta Aurrezki Kutxak:

Lankide Aurrezki Kutxa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Banco Urquijo eta Banco Atlántico.

Udalak:

Bilbo, Getxo, Andoain, Gernika, Barakaldo, Vitoria/Gasteiz eta Baztan.

Publizitate enpresak:

Aurman, Europatent, Estudios Arriaga, David Abajo diseño, Deika, Angel Dominguez eta Itzalak, S.A.

Beste zenbait enpresa eta partikularrak:

Iberdrola, Eroski, DYA, Fotocomposición RALI, S.A., Gráficas Elkar (Sociedad Cooperativa), Rótulos Roura, Herrero Asociados (Agencia oficial de la propiedad industrial), Centro Industrial y Mercantil de Vizcaya, Forondako aireportua, Santa Marinako ospitale eta Zallako bakezko auzitegia.

Aldi berean Zerbitzu honek, kontsulta modura, hurrengo gaioi erantzuna eman izan die, bai telefono bidez eta bai idatziz eta elkarrizke-

ten bitartez, Euskaltzaindiko egoitzan, hots: gramatikarekiko zenbait zailantzaz, hiztegitantzaz euskara ikasi eta lantzeko metodo eta oharrez, bibliografiaz, itzulpen teknikaz, alfabetatzerako orientabideak, Diputazio eta zenbait udaletako itzultzaileekiko itzulpenak, oposaketetarako zenbait argibide, eginiko itzulpen batzuren orrazketa eta zuzentzea.

Bestalde, Euskaltzaindiko ordezkarietara ere eskua bota die, haietara jo dutenen kontsultak argitu eta orientabideak eskainirik, terminologia arazoak bateratzeko, bai itzulpen eremuan eta baita argitarapenen-irizpideetan ere.

4.5. ETSAMINAK

Eremu honetarako bereziki zegoen batzordea suntsiturik dagoenez gero, orain burutzen den lana lanpostu edo beketarako deialdi zehaztu batzuetara mugatzen da. Hau dela eta, egoitzatik zuzenenan erosten da euskararen udal zerbitzu edo itzultzaileen lanpostuetarako denean eta dagoen batzorde bati atxikigarriak baldin badira, aipatu batzordearekin harremanak izanik.

Bukatu berri den urtean, Euskaltzaindia hurrengook ordezkatu dute epaimahaietan, alegia:

- Basauriko udalean, Ricardo Badiola Uriarte
- Zaldibarko udalean, Ricardo Badiola Uriarte
- Bizkaiko Irakasle Eskolan, bizkaieraren gaitasuna frogatzeko epaimahaikide, Gotzon Aurrekoetxea Olabarri.

5. Aurkitegia

EGOITZA

BULEGOAK

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. 94-4158155
Fax 94-4158144
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. 94-4152745
Fax 94-4150051
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

GORDAILUA

Bilbo-Donostia errepeidea, z/g - 4,5 km,
Edif. SAGA - 1. solairua
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf. 94-4406258
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA
San Antonio, 41
01005 GASTEIZ
Telf. 945-233648
Fax 945-233940
Ordezkarria: Endrike Knörr

NAFARROA
Conde Oliveto, 2-2.
31002 IRUÑEA
Telf. 948-223471
Fax 948-210713
Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

GIPUZKOA
Hernani, 15
20004 DONOSTIA
Telf. 943-428050
Fax 943-428365
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

IPARRALDEA
37, rue Pannecau
64100 BAIONA
Telf. 07-33-59256426
Ordezkarria: Pierre Charritton



EKIN E



